

Hezkuntzari buruzko ekarpenak

Contributions on education (EUDIA-8)

EDITOREAK: Juan Abasolo Iratzi de Pablo Ariane Ensunza



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

Hezkuntzari buruzko ekarpenak (EUDIA-8) [Recurso electrónico] = Contributions on education : Leioan, 2019ko apirilaren 5ean / [editores] Juan Abasolo Isasa, Irati de Pablo Delgado, Ariane Ensunza Aldamizetxebarria. – Datos. - Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2020]

1 recurso en línea : PDF (137 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

Textos en euskara e inglés.

ISBN: 978-84-1319-098-3.

1. Euskara (Lengua) - Dialectos. 2. Lenguaje y lenguas - Variación. 3. Prosodia (Lingüística). I. Abasolo Isasa, Juan, coed. II. Pablo Delgado, Irati de, coed. III. Ensunza Aldamizetxebarria, Ariane, coed. IV. Título: Contributions on education.

(0.034)809.169-087

(0.034) 800.87



UPV/EHUko EUDIA Ikerketa-taldea
Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketa taldea (GIU 22/16)
Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa taldea (IT 1028/16)

Hezkuntzari buruzko ekarpenak (EUDIA-8)

Contributions on education

Leioan. 2019ko apirilaren 5ean

Juan Abasolo Isasa
Irati de Pablo Delgado
Ariane Ensunza Aldamizetxebarria



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

Aurkibidea

HIZKEREN SAILKAPEN BERRIA	5
1. Sarrera	5
2. Metodologia	7
3. Datuen analisia	9
4. Hizkeren sailkapena	10
4.1. Multzokatze edo cluster analisia	10
Ward Algoritmoa	11
Average algoritmoa	13
Complete algoritmoa	14
4.2. Fuzzy clusterra	15
5. Euskalkien sailkapen berria	16
6. Ondorioak	17
7. Erreferentziak	18
MELODIC ANALYSIS OF SPEECH (MAS): PHONETICS OF INTONATION	20
1. Introduction	20
2. Identification of melodic units	22
2.1. Phonic hierarchy	22
2.2. Melodic units	23
2.3. Establishing the corpus	25
3. Acoustic phase	26
3.1. Determination of relevant frequency values	26
3.2. Standardisation of the frequency data and graphic representation	29
3.3. Praat Script	32
4. Perception phase	34
4.1. Analysis validation	34
4.2. Identification of the melodic features	36
4.3. Forming the hypotheses	38
4.4. Perception tests	38
5. Discussion and concluding thoughts	39
6. References	43
EUSKARA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN: AFRIKATUETAN BARNA	48
1. Sarrera	49
2. Corpusa eta metodologia	51

3.	Afrikatu motak	52
4.	Euskararen afrikatuez	56
5.	Afrikatuen hedadura	62
6.	Ondorioak	65
7.	Erreferentziak	65
THE SEMANTIC PROFILES OF OLD ENGLISH PRETERITE-PRESENT VERBS OF COGNITION- WITAN AND CUNNAN		68
1.	Introduction	68
2.	The semantics of OE witan	69
2.1.	Witan in pragmatic contexts	71
2.2.	The independent sense of knowing	73
2.3.	Apparently tautological expressions	73
3.	The analysis of the profile of OE cunnan	74
3.1.	The semantic analysis of cunnan in the 10/11th c.	75
3.2.	The semantic analysis of cunnan in the 11th c.	77
4.	Conclusions	78
5.	References	79
AHOZKO TESTUEN PROSODIAREN BILAKAERA JATORRIZKO INGURUNETIK KANPO. EXTREMADURAKO GAZTELANIAREN KASUA BIZKAIAN (BASAURIN)		80
1.	Sarrera	81
2.	Corpusa eta Metodologia	83
3.	Datuen azterketa	86
4.	Ondorioak	94
5.	Erreferentziak	95
DISTANTZIA LINGUISTIKOA NEURTZEKO METODOAK TRANSKRIPZIO MOTAREN ARABERA		96
1.	Sarrera	96
2.	Corpusa	97
3.	Marko teorikoa	98
4.	Metodologia	100
5.	Emaitzak	102
6.	Ondorioak	107
7.	Erreferentziak	108
UMEEI ETA NAGUSIEI EGINEKO TESTUEN PROSODIAREN ALDEEZ		110
1.	Sarrera	111
2.	Metodologia	117
3.	Datuen azterketa	120

3.1.	F0	120
3.2.	Energia	122
3.3.	Iraupena	123
3.4.	Bokalen tasunak	129
4.	Ondorioak	130
5.	Erreferentziak	131

HIZKEREN SAILKAPEN BERRIA

G. Aurrekoetxea (UPV/EHU), I. Gaminde (UPV/EHU), J. L. Ormaetxea (UPV/EHU),
X. Videgain (UPPA/Iker),
gotzonaurre@gmail.com, inaki.gaminde@gmail.com, txipirrin@gmail.com,
charles.videgain@univ-pau.fr

Laburpena

Euskal hizkeren sailkapen hierarkikoa egiten da ekarpen honetan hizkuntzaren alor guztiak kontuan hartuta. Lehen aldiz da egiten honelako sailkapena. Horretarako dialektometria izenez ezagutzen den metodologia erabili da; hau da, EHHA-tik jasotako datuen analisi estatistikoak egin eta emaitzak mapetan ezarri dira. Sailkapen hierarkikoa bezala ezagutzen den teknika estatistikoa erabili da. Lehenik euskalkien eta azpieuskalkien sailkapenak erakusten dira.

Hitz gakoak: dialektoologia, dialektometria, sailkapen hierarkikoa, euskalkiak

Abstract

In this work the first classification of Basque dialects is proposed, using techniques known as dialectometry. The statistical technique used is the cluster analysis, with different classification algorithms. The database has been created with the EHHA data (Euskararen Herri Hizkeren Atlasa- Basque Linguistic Atlas), which has data from all linguistic categories. The outcomes have been used to create maps of dialects and subdialects.

Key words: dialectology, dialectometry, cluster analysis, Basque

1. Sarrera

Hizkeren sailkapenaz zientifikoki hitz egiten hasteko ezinbestekoa da zientzietan sailkapenak nola egiten diren aipatzea. Egia esan, metodo zientifikoek hitz egitean ez dela metodo bakarra esan behar dugu ezer baino lehen: metodo zientifikoak ez dela bide zurruna, alegia. Gainerakoetan bezala, giza zientzietan edo, zehatzago, hizkuntzalaritzan metodo zientifikoek dihardugunean metodo objektiboez hitz egitea dagokigu. Taxonomia arduratzen da aztertzen dituen objektuak bereizi eta beraien arteko harremanen araberako egitura bilatu eta egitura horretan objektuak kokatzeaz, antzekotasun, berdintasun edo hurbiltasuna kontuan hartuta. Bide honetan, zientziak, gure kasuan zientzia enpirikoak (badira logiko-deduktiboak eta induktiboak ere) ezaugarritu duen prozedura-multzoa hau da: behaketa sistematikoa, neurketa, formulazioa eta analisia; hots, hizkuntza bere osotasunean ezin denez aukeratu, lagin bat, lagin ordezkatzaile bat aukeratu behar da. Ondoren lagin horren azterketa eta sailkapena edo analisia egiten da.

Ikerketan zehar burutu den jarduera zientifikoki erabiltzen dela ziurtatzeko, bi prozedura erabiltzen dira: neurketa eta arrazoiketa. Batetik, aztertzen diren objektuen desberdintasun eta antzekotasunak zenbatu eta neurtu behar dira. Neurtzeko komunitate zientifikoak onartutako izari edo unitatea(k) erabiltzen d(ir)a. Neurketak berdintasun-desberdintasunak kuantifikatu egiten ditu eta, ondorioz, berdintasun-desberdintasun horiek eskala batean kokatzen ditu. Bestetik, arrazoiketa erabili behar da, datuak zein irizpidek gidaturik bildu diren eta datuen arteko desberdintasunak zein irizpidetan oinarritzen diren zehaztuz.

Horrez gain, metodo zientifikoak bi oinarri nagusi ditu: erreproduzitzeko gaitasuna eta ezezaggarritasuna. Lehenak, analisi bat egiten denean beste edonork analisi bera errepikatzeko gaitasuna ziurtatzen du; hots, analisi bat beste edonork datu berekin eta teknika berak zein beste batzuk erabiliz berregiteko aukera izan behar duela esan nahi du oinarri honek. Bigarrenak, hots, ezezaggarritasunaren oinarriak, edozein proposamen zientifiko faltsutzat jo edo arbuiatua izan daitekeela defenditzen du. Noiz eman liteke hori? Bada, kontraanalisia edo kontrafrogetan berdinak edo antzeko emaitzak lortzen ez direnean.

Zergatik dator hau hizkeren sailkapenari buruzko lan batean? Bada, euskalkien sailkapenean metodo objektiboak erabiltzea aldarrikatzen dugulako. Euskal hizkerak sailkatzea bada kontua, ekin diezaigun sailkatzeko zientziak garatu dituen tresnak eta irizpideak erabiltzeari. Mekanismo horiek hizkuntzara eta euskarara aplikatuz lortuko da sailkapen zientifikoa edo zientifikoki onartua den sailkapena. Ikerketa honetan metodo objektiboak erabiltzea ondoko hiru ezaugarietan zehazten da:

- a) Datu-base handiak erabiltzea. Zenbat eta lagin handiagoa izan, orduan eta emaitza fidagarriagoak izango dira. Hori izan da arrazoi bat datu-kopuru handia erabiltzeko.
- b) Irizpide objektiboak erabiltzea ezaugariak aukeratzean. Datuak aukeratzeko ondoko irizpideak erabili dira:
 - lexikoan, lexiko komuna erabiltzea; irizpide honi jarraituz, bazter utzi dira arrain, txori eta zuhaitzen izenak, adibidez. Hiztun arruntek eguneroko bizitzan erabiltzen dituzten hitzak bildu dira datu-basean;
 - galderak ez ditzala izan erantzunik gabeko herri asko; galderak herri guztien % 5ean erantzunik ez badu, galdera hori ez da kontuan izan.
- c) Estatistika deskribatzailearen sailkapen automatizatuak erabiltzea; datu-basean bildu den informazioa estatistikoki tratatzeko gaur egun zeregin honetarako nazioartean estandarrak diren teknikak erabili dira, hizkerak sailkatzeko *Diatech* eraikitako tresna erabiliz.
- d) Sailkapen teknika desberdinen artean hierarkikoak ere erabiltzea; izan ere, hizkeren arteko loturak hierarkia baten ikustea beraien arteko loturen egitura erakusten du.

Artikulu honetako 2. atalean erabilitako metodologia inguruko zehaztapenak emango dira. Hurrengoan datuen analisia egingo da. Laugarrenean hizkeren sailkapenaz arituko gara;

bostgarrenean euskalkien sailkapen berria aurkeztuko da. Azkenik, seigarrenean ondorioak aipatuko dira.

2. Metodologia

Datuak bi iturritatik jaso dira: gehienak Euskaltzaindiaren EHHA egitasmotik; eta egitasmoan bildu ez den informazioa, azentuarena alegia, Gaminderen lanetatik. Hizkerei dagokien sailkapena egiteko hizkuntza atal desberdinako datuak erabili dira: lexikoari dagozkion 183 kontzeptutako hitzak, izen-morfologiari dagozkion 156 ezaugarri, aditz-morfologiari dagozkion 136 ezaugarri, sintaxiari dagozkion 61 ezaugarri eta fonologiari dagozkion 113 ezaugarri. Guztira 649 ezaugarietan oinarritzen da hizkeren sailkapen orokorra. Euskal hizkeren sailkapenetan orain artean erabili izan direnetatik oso urrun dago kopuru hau. Hizkeren sailkapen hau orain artekoak baino osoagoa da, ez bakarrik datu-kopuruan, baita hizkuntza ataletan ere. Izan ere, hizkuntza atal guztiak erabili dira sailkapen honetan: lexikoa, izen-morfologia, aditz-morfologia, sintaxia eta fonologia. Izaera honek behar-beharrezko bermea ematen dio lan honi. Ezaugarri hauek, jada ezaguna denez, hizkeretan zehar nola gauzatzen diren zehazteko, euskararen eremuko 145 herrian jasotako erantzunak bildu dira; adibidez, galdera orokorretan morfemarik eransten den ala ez zehazteko (hau da, “al” partikula, “-a” atzizkia ala morfoligikoki ezer berezirik ez duten zehazteko) ondoko galdera edo antzekoa egin da herriotan: “zure laguna etorri da?” edo “zure lagunak egin du lana?” eta antzeko besteren bat ere (galderak egitean lexikoan gaia aurkezten euskara erabili den bitartean, gramatika kontuetan erdarazko esaldiak eman izan zaizkie lekukoei eta horiek euskaraz esatea eskatu zaie). Erantzunetan *etorri da*, *etorri al da*, *jin dea* eta antzekoak bildu dira, eremuan eremuko moldeak erabiliz. Basean guztira 100.000 datu baino gehiago bildu dira.

Orain arte egin izan diren sailkapenetan sintaxia nekez agertu izan da, ezaugarriren bat edo beste salbu; lexikoa ere ez da sistematizazio batez erabili, nahiz hitz bat edo beste erabili izan den. Bestalde, gorago aipatu diren 649 ezaugarritan aldaera asko dituztenak eta aldaera gutxi dituztenak bildu dira, baina aipatu behar da hori ez dela izan ezaugarri edo hitz horiek aukeratzeko irizpidea. Ulertzen dugu hizkuntza atalak ez daudela neurri berean ordezkatuak datu-basean: kasu honetan izan dugun muga bakarra EHHA egitasmoa izan da. Ahalegindu gara ahal bezainbat ezaugarri biltzen eta hizkuntza atal bakoitzeko ezaugarriak aukeratzen eta datu-basea sortzean oinarrizko irizpidetzat gutxienez 100 ezaugarri biltzea izan da; jakina, sintaxian ez da lortu, hain zuzen ere EHHA egitasmoan ez direlako kopuru horretara heltzen hizkuntza atal honi dagozkion galderak.

Intonazioari dagokion ezaugarririk ez da sartu hizkeren sailkapenerako datu-basean. Ez nahi ez delako izan, EHHAko egitasmoan ez delako horren ezaugarririk baizik. EUDIAko zenbait ikertzailek intonazioa landuz hizkeren sailkapena egina duten arren (Iglesias & Aurrekoetxea, 2017), ikerketa-metodologiak galarazi du hona ekartzea eta kanpoan gelditu da. Etorkizunean erantsi beharrekoa da.

Datu hauek datu-base batean eratu dira lehenik. Eraiki den datu-base orokorraren ezaugarri nagusiak hauek dira:

- a) Abiapuntua EHHAn jasotako erantzunak idazkera arautuan emanak dira; baina datu-base orokorrean ez da erantzunik eman. Hauek lematizatu egin dira hizkuntza atalkako datu-basean eta hemen datu lematizatuak bakarrik erabili dira.
- b) Atzizkiak (menpeko esaldietan, adb.) edo adizki konposatuak erabili izan direnetan (aditzari dagozkion datuetan) ez dira lexemak edo aditz nagusiak erabili.
- c) Erantzunak eta proposamen onartuak (herrikotzat joak) maila berean tratatu dira; uste dugu metodologia batek ahalbidetu dituen hitzak eta formak lekuoak beretzen hartzen dituenean, nahiz iradokiak izan, herrikotzat jo behar direla.
- d) Erantzunetan agertzen diren desberdintasun fonetiko edo ebakerazkoak izan dira kontuan (*ditut*, *dittut*, *ittut*, adibidez, hirurak onartu dira).
- e) Testuinguruak eragindako aldaketa fonetikoak ez dira kontuan hartu (hauen artean agertzen da *-m* bukaerakoa); hots, honelako kasu guztiak *-n* bihurtu dira.
- f) Azentua ez da kontuan izan: azentuatu gabeko eta azentuatutako formak berdintzat hartu dira. Hori orokorrean, morfologia, sintaxia eta lexikoa aztertu izan direnean, hala izan den arren, fonologia sailean azentuari buruzko 16 ezaugarri erabili dira, hain zuzen ere aurretik ikerketa-talde honetako partaide batzuek (Aurrekoetxea, Gaminde, Iglesias & Gandarias, 2012, 2013, 2014 eta 2015) landutakoa.
- g) Erantzun anitzak: herri berean galdera batentzat erantzun bi edo gehiago izatea.

Analisi hau egiteak denbora eta lana eskatu dio lantaldeari. Lehen datu-basea 2014an sortu zen, izen-morfologiari buruzkoa eraiki zenean; eta harrezkero urtero-urtero datu-base berriak sortzeko lanak ez du etenik izan, hizkeren sailkapen orokorra egiteko datu-base guztiak bildu arte.

Analisiak egiteko *Diatech* tresna informatikoa erabili da (<http://eudia.ehu.eus/diatech/index>). Oraindik guztiz amaitu gabe badago ere (gaztelaniaz bakarrik dago *interfacea*, adb.), datubaseen kudeaketa eta analisi estatistikoak egiteko gai da. Azterketa honetarako *Cluster* edo multzokatze-analisi hierarkikoa aukeratu da hasteko, eta algoritmo desberdinak erabili dira: *Ward*, *Average* eta *Complete*. Hizkuntza distantzia unitatea RIV edo IRD da. Multzokatze hierarkikoaren analisiaren emaitzak hiru dira: dendrograma, mapa eta legenda (multzo bakoitzean zenbat hizkera biltzen diren adieraziz). Dendrogramak erakusten du nola dagoen egituratuta hizkeren hierarkia eta multzo bakoitzaren osagaien arteko harremana. Dendrogramaren egituraren arabera egiten da mozketa; hau da, non edo zein mailatan moztu behar den. Bertsio honek marra baten bidez irudikatzen du eta ikertzaileak aukeratzen du 2, 3, 4... multzotan utzi behar den. Mozketa hori mapan irudikatzen da: 3 multzotan moztea erabaki bada, mapan 3 eremu agertuko dira, bakoitza kolore batekin koloreztatuta. Bertsio honek koloreak aldatzeko aukera ematen dio ikertzaileari. Analisia amaitu ostean datuak (dendrograma, mapa eta legenda) irudiformatuak jaits daitezke.

Lan honek hainbat egonaldi trinko egitera bideratu du lantaldea. Egonaldi berezitu horietan talde-lan trinkoaren helburua datu-base bat sortzea izan da, egonaldi bakoitzean hizkuntza atal bati dagokion datu-basea. Horrela joan dira urtez urte eraikitzen oinarrizko datu-baseak.

Beraz, hemen aurkezten den hizkeren sailkapen orokorra gauzatzea 5 urteko lanaren emaitza da; 2014. urtean ezarri zen lehen harria eta 2019. urteko hasieran ipini da azkena. Tarte honetan atalkako baseak sortuz joan diren neurrian atalkako argitalpenak ere egin dira; hala nola Aurrekoetxea, 2016a,b, 2018, 2019; Videgain & Aurrekoetxea, 2016; Aurrekoetxea, Gaminde, Gandarias & Iglesias, 2012, 2013, 2014, 2015; Aurrekoetxea, Gaminde, Etxebarria & Iglesias, 2012; Aurrekoetxea, Ormaetxea & Videgain, 2018, 2019).

3. Datuen analisia

Hizkerak edo dialektoak elkarren artean konparatu eta euren arteko desberdintasunak zehazteak dakartzan arazoak presente egon dira dialektologiaren historian zehar. Hizkeren arteko desberdintasunak kuantifikatzeko Jean Séguyk (1971) proposatutako bideak, *dialektometria* izenaz ezagutzen denak, abiarazi du, eta gaur egun nazioarteko dialektologian estandar bihurtu diren prozedurak dira. Uste dut ez dagoela lekuz kanpo kapitulu hau L. Mitxelenaren aipamen batekin hastea, zeinetan hizkeren arteko desberdintasunez ari den (1981: 295):

No puedo entrar aquí a discutir hasta qué punto son divergentes los distintos dialectos vascos. Me limitaré, pues, a decir que una consideración científica de este y otros problemas semejantes exige, como requisito indispensable, algún procedimiento operativo de cuantificar las distancias lingüísticas, y remitiré a la propuesta de nuestro malogrado amigo Jean Séguy, (...). A falta de alguna suerte de medida, habrá que referirse a estimaciones del orden de magnitud, hechas a ojo de buen o mal cubero. Así, es posible que esas diferencias le parezcan muy grandes al hablante ordinario no iniciado a fondo más que en el euskera de su círculo local o comarcal, pero, para un comparatista, y este es el punto de vista que hay que adoptar aquí, las divergencias, como ya he escrito en algún otro lugar, son desesperadamente pequeñas.

Hemen apustu argia dago dialektoak sailkatzeako gaur eguneko nazioarteko teknika estandarrak erabiltzeko. Ikerketa-talde honek, sortu zenetik, helburu hori izan du, euskararen bariazioa ikertzean nazioartean erabiltzen diren metodologia eta prozedurak erabiltzea. Gaur egun bada nazioarteko komunitate zientifikoak onartutako prozedura bat: hain zuen, gorago aipatu diren datu-base handiak erabiltzea da lehena, sailkatze-teknikak erabiltzea da bigarrena, eta abar.

Hizkeren arteko hizkuntza-desberdintasuna procedura kuantitatiboak erabiliz zehazki neurtzen da, distantzia-unitate zehatz bat erabiliz. DMn nagusiki bi unitate erabiltzen dira: RIV (distantzia kategorikoa) datu lematizatuetarako eta Lv (distantzia numerikoa) datu fonetikoetarako (1. taula). Ikertzailearen hautua da: hemen datu-analisia lematizatuekin egitea erabaki denez, RIV distantzia-unitate kategorikoa da egokiena, eta hori erabili da (bien arteko desberdintasunerako ikus taula). Distantzia-unitate hau erabiliz hizkeren arteko distantziaren taula ere lortzen da (ikus 1. taula).

	Ahetze	Aia	Aldude	Alkotz	Altzai	Altzürükü	Amezketa	Andoain	Aniz	Aramaio
Abaurregaina	40,61	43,99	35,64	33,05	48	47,8	46,59	45,74	35,07	53,69
Ahetze		41,85	26,25	36,92	40,65	41,56	43,3	43,68	35,81	52,92
Aia			46,54	37,74	53,22	54,53	22,51	21,97	41,89	44,14
Aldude				37,92	38,59	39,15	46,96	47,08	35,96	52,14
Alkotz					50,74	49,44	37,94	37,96	23,7	48,96
Altzai						14,17	56,12	54,77	49,98	60,03
Altzürükü							56,51	55,77	48,9	60,31
Amezketa								21,31	40,05	43,52
Andoain									41,65	44,76
Aniz										50,15

1. taula: hizkuntza-atal guztiak datuetan oinarritutako hizkuntza-desberdintasunak (taula zatia)

Taulan ikus daitekeenez, Abaurregaineko hizkeratik Ahetzekora, adibidez, % 40,61eko hizkuntza-desberdintasuna dago. Hizkera beretik Aiakora % 43,99. Taulan erakusten den zatian desberdintasun handiena Altzürükü eta Aramaioko hizkeren artean kokatzen da (% 60,31); ondoren oso hurbil Altzai eta Aramaikoaren artean (% 60,03). Hizkuntza-desberdintasun txikiak erakusten den taularen zatian Altzai eta Altzürüküko hizkeren artean biltzen da (% 14,17), ondoren Aia eta Andoaingo hizkeren artean (% 21,97).

Baina bilaketa taula osora hedatuko balitz, Sohüta eta Altzaiko hizkeren artean biltzen da hizkuntza-desberdintasun txikiak (% 13,7); ondoren, Errezil eta Beizamako hizkeren artean (% 13,65). Aldiz, hizkuntza-distantzia handienak (beraz, urrunen diren hizkerak) Lemoiz eta Eskiulako hizkeren artean jaso dira (% 66,56), ondoren Sohüta eta Etxebarriko hizkeren artean (% 66,07). Horrek esan nahi du lan honetarako aukeratu diren hizkuntza-ezaugarri guztiak kontuan hartuz, aztertzen diren euskara tradizionalaren eremu osoko 145 hizkeren arteko distantzia handiena % 66an kokatzen dela eta distantzia txikiak % 13an.

4. Hizkeren sailkapena

Hizkeren arteko desberdintasun kuantitatibo hauek izango dira emango diren urrats berrien oinarri. Kuantifikotasun honen ezaugarriek ziurtatu behar dute ondoko urratsetan lortzen diren emaitzak. Sailkapen orokorrari dagozkion ezaugarrietan oinarrituz, batetik hizkeren sailkapena burutuko da eta, bestetik, sortu diren hiru euskalkien hizkuntza-ezaugarriak aurkeztu dira. Aurrera baino lehen, gogoratu behar da sailkapen hau hierarkikoa dela; hots, metodo honen bidez aztertzen diren 145 hizkerak hierarkia batean kokatzen direla, antzekoen diren hizkeretatik desberdinak diren hizkeretaraino. Sailkapen hierarkikoaren ostean beste mota bateko estatistika teknika erabiliko da, sailkapen hierarkiko horretan lortutako emaitzak egiazatzeko: eskalatze multidimentziala, *MDS* laburdurarekin ezagunagoa.

4.1. Multzokatze edo cluster analisia


Hizkuntza-ezaugarri guztiak kontuan hartuz, hizkeren sailkapena egiteko multzokatze edo *cluster* analisia deitu teknika kuantitatiboa erabili da. Multzokatze-teknika asko dago, besteak

beste, *Discrete Clustering*, *Fuzzy Clustering*, *Composite Cluster*, *Noisy Clustering* eta *Bootstrap Clustering* deituak. Ikerketa honetan lehena, hierarkikoa, aukeratu da.

Bestalde, multzokatze-analisietai algoritmo desberdinak erabiliko dira: batetik *Ward* algoritmoa, bestetik *Average* edo *batezbestekoa* eta, azkenik, *Complete* edo *osoa*. Ezaguna da algoritmo bakoitzak bere berezitasunak dituela eta modu desberdinez joaten dela hizkerak multzokatzen. Algoritmo bakoitzak nola jokatzen duen lerro bitan azalduko da: batetik, *Ward* algoritmoa (biltzean multzoaren erdigunera dagoen distantzia karratuengen gehiketa erabiltzen du; gutxien handitzen duten bi multzoak aukeratu behar dira. Multzo bakoitzean erdiren den hizkera aukeratzen du eta biltzen den multzoko erdiren den hizkerarekin neurten da distantzia); *Complete* algoritmoaren abiapuntutzat hizkera bakoitzaren berdintasun zenbakia handienak hartzen dira, eta multzoen arteko distantzia multzo bakoitzeko hizkera urrunenak aukeratuz zehazten da. *Average* algoritmoa bi *cluster* edo multzoen arteko distantzia bi *cluster* horietako hizkerak binaka hartuz dagoen distantziaren batez bestekoa da. Hiru algoritmo hauekin lortzen diren emaitzak erkatuko dira eta, ondorioz, helburuekin bat datorren algoritmoa aukeratuko da euskalkien sailkapenerako. Sailkapena bi emaitzetan aurkeztuko da: batetik, dendrograma edo sailkapen hierarkikoaren irudia eta, bestetik, irudi hori mapan ezarriko da euskalkien eremua erakusteko.

Ward Algoritmoa

Lehen-lehenik Ward algoritmoa erabiliko da. Dendrogramak aztertzen diren hizkerak hierarkia baten barruan kokatzen ditu. Aurreko kapitulueta bezala, hemen ere gainazpiz jarritako zuhaitz baten itxuran aurkezten da; hots, zuhaitz inbertituarena, goialdean enborra eta behealdean adarrak (1. irudia).




1. irudia: hizkuntza-ezaugarri guztien dendrograma (*Cluster-Ward* metodoa)

Helburua hizkuntza-ezaugarri guztien datuak erabiliz euskararen eremuan zenbat eremu dialektal agertzen diren izanik, dendrogramak argiki erakusten du hiru eremu nagusi agertzen direla. Hori baiezta zeko aski da dendrogramak dituen hiru adar luzeenak hartzea kontuan. Honek esan nahi du hizkera guztien artean hizkuntza-desberdintasun handiena adar horiek gordetzen dutela. Bariazioaren zein kopuru biltzen duten hiru adar nagusi horiek? Bada, batetik irudiaren goren maila hartu behar da kontuan. Horretarako ezkerrean agertzen den graduazio-eskalari erreparatu behar zaio: azken adar biak eskalaren 8.700 maila inguruan biltzen dira (eskalak 8.000 mailaraino markatzen duen arren, irudia luzeago denez, kalkulua egin behar da). Bestetik, hiru eremu agertzeko (begiratu behealdean agertzen diren herriak hiru kolorez koloreztatuta daudela) eskala 635 maila inguruan moztu da (2.000 maila baino askoz beherago biltzen dira gorri kolorez idatzitako herriak). Hizkuntza-ezaugarri guztiak kontuan izanik, hizkeren artean lortu den bariazio guztia 8.700 mailan biltzen bada eta hizkera horiek hiru eremutan sailkatzen 635. mailaraino jaitsi garenez, horrek esan nahi du eskalako maila horretan bariazioaren % 92,76 biltzen dela (8.700 mailak % 100 adierazten du eta 635. mailak % 7,30).

Modu honetan, ikerketa honetan erabili diren hizkuntza-ezaugarri guztiei dagozkien datuak erabiliz, hiru eremu dialektaletan bereizten badira, lehena gorri idatzitako hizkerak osatzen dute. Bigarren multzoan orlegiz idatzitako hizkerak agertzen dira; hauek lehen multzoan bildutakoak baino maila jasoagoan biltzen dira. Azkenik, urdinez idatzitako hizkerak agertzen dira hirugarren multzoan. Hauen biltze-maila gainerako biena baino maila goragoan agertzen da.

Dendrogramaren mozketa eskalako 635. mailan egitea erabaki da eta, ondorioz, hiru multzotan sailkatu dira hizkerak. Maila horretan hiru adar luze agertzen dira; eta hiru adar moztu direnez, hiru eremu dialektaletako mapa eraikiko da. Dendrogramaren mozketa maparatzean kontuan izan behar da mapan marrazten diren eremuak geografikoki koherenteak izan behar direla. Irudikatu den mapan hiru eremuek koherenzia handia erakusten dute (ikus 2. irudia).



2. irudia: hizkuntza-ezaugarri guztiak hartuz eraikitako euskalkien mapa (Ward, RIV, 3 multzo)

Hiru eremuok hiru dialekto irudikatzen dituzte: mendebaldekoa, erdialdeko eta ekialdekoa (terminologia ez dago finkatua oraindik). Mendebaldekoak, Bizkaiko herri guztiez gain Gipuzkoako mendebaldeko hizkerak (Eibar-50, Bergara-35, Araotz-Oñati-12, Oñati-114, Arrasate-18, Leintz Gatzaga-96), eta Arabako Aramaio-11 hartzen ditu; guztira 43 herri biltzen dira euskalki honetan.

Erdialdeko euskalkiak Gipuzkoako gainerako hizkerak eta Nafarroako guztiak, Luzaide-103 eta Zugarramurdi-145 izan ezik hartzen ditu; guztira 55 herri biltzen dira euskalki honetan. Mendebaldeko euskalkiak bezala, eremu trinkoa osatzen du euskalki honek ere.

Azkenik, ekialdeko euskalkia dugu, zeinetan Iparraldeko hizkera guztiak sartzen diren eta hauekin batera Luzaide eta Zugarramurdi; guztira 47 herri edo hizkera. Oso eremu trinkoa osatzen du euskalki honek ere.

Hiru eremu dialektal, hiru euskalki oso ongi bereiziak eta egituraketa geografiko trinko eta orekatua erakusten dutenak. Diogunaz gain, 3 euskalkiek biltzen dituzten eremu geografikoak ere antzekoak dira, mendebaldekoan izanik agian eremu txikiagoa. Hizkerei dagokienetik, 3 euskalkiek antzeko hizkera-kopuruak biltzen dituzte, nahiz erdialdekoan den gehien biltzen dituena.


Orain artean inoiz burutu ez den sailkapena dugu hau. Lehen aldia da euskalkiak sailkatzeko ikerketetan 4 gramatika atal (fonologia, izen-morfologia, aditz-morfologia eta sintaxia) eta lexikoari dagozkion ezaugarriak erabiltzen direna. Gainera, inoiz ez bezalako hizkuntza-ezaugarri kopurua erabili da; kapitulu honen hasieran esan bezala, 649 ezaugarri erabili dira lan honetan. Aipatu behar da, halaber, orain artean aztertu diren hizkuntza-alor bakotzean lortu diren sailkapenen oso-oso antzekoa dela. Honek guztiak egonkortasun eta fidagarritasun handia ematen dio lortu den mapari.

Average algoritmoa

Behin *Ward* algoritmoarekin dendrograma eta mapa lortu ondoren, beste bi algoritmo erabiliko ditugu analisia egiaztatzeko. *Average* edo *batezbesteko algoritmoa* zertxobait desberdina dela esan da gorago; hizkeren arteko distantziak neurtzean hizkera guztiak arteko distantziak hartzen ditu aztergai, eta lortzen diren emaitza guztiak batezbestekoa egiten du. Hain desberdinak diren algoritmoen emaitzak bat etortzea ez da ohikoa, hain zuzen ere erabiltzen dituzten prozedurak oso bestelakoak direlako. Algoritmo desberdinak emaitzak erkatzean helburua ez da emaitza bera lortzea (ia-ia ezinezko), desberdintasunak zein diren atzematea baino.

3. irudia: hizkuntza-ezaugarri guztiak hartuz eraikitako euskalkien mapa (*Average*, RIV, 3 multzo)


Batezbestekoa algoritmoarekin lortu den mapa (3. irudia) *Ward* algoritmoarekin lortu denarekin (4. irudia) erkatuz gero, konturatuko gara berdin-berdina dela. Hots, bi mapetan



euskalki berak eta euskalki bakoitzean hizkera berak agertzen dira. Hizkerak sailkatzeko metodo desberdin bi erabiliz mapa berdina ateratzeak esan nahi du muga horiek egonkorrik direla.

Complete algoritmoa

Diatech tresnak hirugarren algoritmoa ere implementatuta duenez, aukera dugu hau ere erabiltzeko eta emaitza gainerako biekin erkatzeko. Algoritmo honekin aurreko biekin izandako prozedura eta datu berak erabili dira.




4. irudia: hizkuntza-ezaugarri guztiak hartuz eraikitako euskalkien mapa (*Complete*, RIV, 3 multzo)

Lortu den mapan (4. irudia) hiru euskalki garbi agertzen dira, aurreko bi mapetan bezalaxe; baina desberdintasun bat dago: dendrograman ikusten da mendebaldekoa (gorria) eta erdialdekoa (urdina) lehenago biltzen direla eta gero biltzen dela ekialdekoa (orlegia); aurreko bi mapetako dendrogrametan, aldiz, mendebaldekoa (gorriz) da azken biltzen dena. Horrez gain, bada beste desberdintasun bat, mapak erakusten duena: mendebaldeko eta erdialdeko euskalkien arteko muga bera den arren (mendebaldeko euskalkiak eusten dio bere hizkera kopuruari), erdialdeko euskalkiak ekialderen dauden Nafarroako 8 hizkera galtzen ditu (Jaurrieta, Abaurregaina, Zilbeti, Mezkritz, Eugi, Erratzu, Lekaroz eta Aniz).

4.2. Fuzzy clusterra

Fuzzy edo multzo lausoen teknika multzokatze ez-hierarkikoa da eta ez ditu hizkerak hierarkia baten barnean sartzen. Bi emaitza grafiko lortzen dira teknika honekin: diagrama eta mapa. Diagramak hizkerak plano desberdinatan ematen ditu: pantailan dugun diagramak hizkera guztiak bi ardatzetan kokaturik erakusten ditu eta beraien artean dauden hizkuntza desberdintasunak distantziarekin irudikatzen ditu. Zenbat eta multzoen artean tarte handiagoa izan orduan eta hizkuntza desberdintasun handiagoa adierazten du (5. irudia).



5. irudia: dispersio diagrama

Teknika hau ona da *cluster* determinista hierarkikoetan jasotzen diren emaitzak baieztatzeko. Gorago esan bezala *cluster* deterministetan ez da hizkeren arteko desberdintasunen maila argiki erakusten; teknika honek, ordea, hori egiten du ondoen. Teknika osatzaileak dira aipatzen ari garen bi hauek.


Diagraman ederto agertzen da multzo gorria osatzen duten hizkerak nahiko bananduta aurkitzen direla urdinez bildutakoetik. Hala ere, multzo horretan berean ere, hizkera batzuk oso hurbil dira (batzuk elkarren artean gainjartzen dira), eta beste batzuei, ordea, urdinez bildu diren hizkeren multzoranzko joera antzematen zaie. Hori horrela izanik ere, multzo kohesionatutzat hartu behar da, bere multzoko hurbilen dituen hizkerak hurbilago dituelako, ondorengo multzoko lehen hizkerak baino.

Ez da hori gertatzen urdinez bildu diren hizkeren multzo eta orlegizkoen artean. Bi multzo hauen artean ez da muga zehatzik marrazten (marra urdin eta orlegiak elkar ukitzen duten gunean badira bi multzoetako hizkerak). Bi multzoek elkar ukitzen duten gunean agertzen diren hizkerak askoz ere hurbilago daude euren artean, bakoitza bere multzoko beste hizkeretatik baino. Hemen argi adierazten da *cluster* hierarkiko-sailkatzaileetan batetik Ward eta *Average* algoritmoekin egindako sailkapena eta mapa eta, bestetik, *Complete* algoritmoarekin egindakoaren artean eremu batetik bestera mugitzen diren hizkeren kasua. Eremu batetik bestera mugitzen diren hizkera horiek beste eremuko hizkeren harreman ona dute eta hori argiki islatzen du *fuzzy cluster* teknikarekin lortutako dispersio-diagramak.

Cluster hierarkiko-sailkatzaileen eta *fuzzy cluster* teknikak osagarriak dira eta hizkeren arteko hizkuntza hurbiltasunak modu desberdinatan irudikatzen dituzte. Lehenean, hierarkia baten barnean kokatzen dira; bigarrenean, ordea, bi ardatzetako planoan kokatzen dira, hizkuntza hurbiltasuna espazioarekin irudikatuz. Lehenarekin multzoak zurruntasun handiz eraikitzen dira; bigarrenean hizkuntza errealtitatean gertatzen diren bariazioa modu bisualago batean eskaintzen da.

5. Euskalkien sailkapen berria

Aurreko analistik ondorio garbia ateratzen da: euskarak 3 euskalki ditu, ez gehiago, ezta gutxiago ere (6. irudia). Bat mendebaldean; bigarrenak erdialde osoa hartzen du, eta hirugarrenak ekialdea. Euskalkien mapa berria hau da:



6. irudia: Euskalkien mapa berria.

Argumentu bi mapa hau euskalkien mapa izendatzeko:

- Erabilitako *cluster* teknikek erakusten dute hiruko sailkapena dela egokiena. MDS teknikak ere erakusten du hiru multzotan banatzea egokia dela.

- b) Bestalde, eta 1. grafikoa berrartuz, sortu den datu-basean dagoen hizkuntza-desberdintasun guzta dendrogramako eskalan 9.314 mailatan sartzen da. Hori da desberdintasun guztiak metatuta *clusterrean* lortu den kopurua. Dendrogramako hiru lerro handienei erreparatzen bazaie, ikusten da kolore urdinez idatzita dauden hizkerek osatzen duten multzoarena eskalako 1.600 mailan hasten dela. Maila honetan hizkuntza-desberdintasunen % 17a biltzen da.

Euskalkien tasunen inguruan zalantza handiak dauden arren eta eztabaidea bere horretan bukatu ez den arren, baiezta liteke desberdintasunen % 17 baino gutxiago duen eremua ezin dela euskalki izendatu; maila horretatik beherako multzoek azpieuskalki edo beste izendapen bat hartu beharko luketela deritzogu. Egia esan, eztabaidea hasi baino ez da egin eta beharko luke aurrerantzean ere ekarpen berriak izatea.

6. Ondorioak

Euskalkien sailkapen berria behar-beharrezkoa izan da euskal dialektologian. Orain artean argitaratutako euskalkien sailkapenak dialektologia tradizionaleko metodologia eta prozedurak erabiliz burutu dira. Sailkapen hau, aldz, dialektologia berriak darabiltzan metodologia eta tresnak baliatuz egin da, nazioarteko dialektologian estandarrak diren dialektoak sailkatzeko teknikak erabiliz.

Horretarako ezinbestekoa izan da EHHA egitasmoa. Egitasmo honek euskararen ohiko eremuari dagozkion datuak bildu izanak ahalbidetu du esku artean duzun hizkeren sailkapen hau. Izan ere, datu dokumentatu eta konstatagarriak ezinbestekoak dira edozein ikerketa-proiektu abian jartzeko. Egitasmo honetan argitaratutako informazioa erabili da; hori gabe ezinezko zatekeen ikerketa honek eskatzen dituen parametroetan aurreratzea.

Gaurko teknikek ahalbidetzen dituzten datu-kopuru handiak erabili dira berton. Ia 100.000 datuko datu-basetik abiatu dira kuantifikazioa eta multzokatze-teknikak. Hain datu-kopuru handiek, batetik, ikerketari sendotasuna ematen diote eta emaitzei ziurtasuna eskaintzen diente; bestetik, ezinezko bihurtzen du ezaugarrietan hautuak egitea; ikertzailearen lanetan sartzen da datuak kudeatzea, baina kudeaketa horretan ez da sartzen ezaugarrien aukeraketa; beraz, subjektibilitatetik urrunduz objektibotasunean sakontzen da. Hirugarren, datu-kopuru handiak erabiltzeak hizkeren arteko hizkuntza-desberdintasunaren kuantifikazioa tresna estatistikoekin burutu beharra dakar. Tresna hauek edozein zientziatan erabiltzen direnak izanik, ez du hizkuntzalaria mesfidantzara bultzatu behar; aitzitik, emaitzen sinesgarritasun eta fidagarritasun maila jasoagoa dutela onartzera baizik.

Hurrengo urratsen artean lehena euskalkien ezaugarriak zehaztea izango da. Ondoren azpieuskalkien zehaztea eta berorien hizkuntza-ezaugarriak lortzea.

7. Erreferentziak

- Aurrekoetxea, G. (2016a). Analysis of the morphological variation of Basque. *Dialectologia et Geolinguistica*, 24, 21-41.
- Aurrekoetxea, G. (2016b). Distantzia geografikoaren eta hizkuntza distantziaren arteko korrelazioa. En G. Aurrekoetxea, J. M. Makazaga & P. Salaberri (arg.), *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*, Bilbo: UPV/EHU, 55-72.
- Aurrekoetxea, G. (2018). Hizkuntza bariazioa eta erantzun anitzak. In A. Etxebarria, A. Iglesias, H. Lejarreta & A. Romero (arg.), Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omenduz, Bilbo: UPV/EHU, 171-190.
- Aurrekoetxea, G. (2019). Classification of syntax in Basque. *Language Documentation 7* (Bolzano 11-13 February, 2019) biltzarrean aurkeztua.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L. & Iglesias, A. (2012). Prosodic variation in the Basque language: stress areas. In X. A. Álvarez Pérez, E. Carrilho & C. Magro (arg.), *Proceedings of the International Symposium on Limits and Areas in Dialectology (LimiAr). Lisbon, 2011*. Lisboa: Centro de Lingüística da Universidade de Lisboa, 35-51. [http://limiar.clul.ul.pt/proceedings_en.html]
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Etxebarria, A. & Iglesias, A. (2012). Ahozko hiztegia. *Euskalingua*, 21, 20-27.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Iglesias, A. & Gandarias, L. (2013). Prosodic Variation in the Basque Language: Stress Areas. In E. Carrilho, C. Magro & X. A. Álvarez (arg.), *Current Approaches to Limits and Areas in Dialectology*, Cambridge: Cambridge Scholars Publishing, 247-266.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L. & Iglesias, A. (2014). Variación prosódica en vasco: áreas acentuales. En In Y. Congosto, M. L. Montero & A. Salvador (arg.), *Fonética experimental, educación superior e investigación. III. Prosodia*, Madrid: Arco Libros, 11-28.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L. & Iglesias, A. (2015). Euskararen azentuera: hizkera tradizionaletatik euskara estandarrera. In M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbo: UPV/EHU, 71-96.
- Aurrekoetxea, G., Ormaetxea, Tx. & Videgain, X. (2018). Euskalkien sailkapen zientifikoa: lexikoa. In L. Unamuno, A. Romero, A. Etxebarria & A. Iglesias (arg.), *Linguistic Variation in the Basque and Education-III / Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza-III*, Bilbo: UPV/EHU, 126-140.
- Aurrekoetxea, G., Ormaetxea, Tx. & Videgain, X. (2019). Euskalkien sailkapen zientifikoa: lexikoa (2). In A. Iglesias, N. Eguskiza & L. Unamuno (arg.), *Linguistic Variation in the Basque and Education-IV / Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza-IV*, Bilbo: UPV/EHU, 41-59.
- Iglesias, A. & Aurrekoetxea, G. (2017). Intonazioaren egituraketa geolinguistikoa. In A. Etxebarria & N. Eguskiza (arg.), *Bariazioa esaldien intonazioan*. Bilbo: UPV/EHU, 277-295.
- Mitxelena, L., 1981, “Lengua común y dialectos vascos”, ASJU XV, 291-313 [orain *Palabras y textos liburuan* 35-55 orrialdeetan ere].
- Séguy, J., 1971, “La dialectométrie dans l’Atlas linguistique de la Gascogne”, *RLiR* 37, 1-24.
- Videgain, X. & Aurrekoetxea, G. (2016). Euskararen bariazio geo-morfologikoaren azterketa. In A. Iglesias, A. Romero, A. Ensunza (arg.), *Linguistic variation in the basque language and education - II / Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza -II*, Bilbo: UPV/EHU, 25-36

MELODIC ANALYSIS OF SPEECH (MAS): PHONETICS OF INTONATION

Francisco José Cantero Serena, Dolors Font-Rotchés

Universitat de Barcelona

cantero@ub.edu; dolorsfont@ub.edu

Abstract

The acoustic-perception-based Melodic Analysis of Speech method (MAS) is a formal, objective and complete method that encompasses the most relevant aspects to be considered when analysing intonation. It provides researchers who wish to study intonation with criteria for establishing a corpus, the identification of melodic units, the extraction and relevance of acoustic data, its standardisation and the representation and interpretation of graphs, as well as the execution of perception tests and validation of the results obtained. It also offers a way of interpreting the melodic data based on three levels of intonation: one which provides an explanation of the structure of speech, the prelinguistic level, the linguistic level and the paralinguistic level, giving it significance with regard to the speaker's intentions or the communicative context. In addition, a phonological description based on the Autosegmental-Metrical model (AM) and its labelling convention known as Tones and Break Indices (ToBI), which is complementary and totally compatible with the phonetic description of MAS, can be added.

The method is constantly advancing, being reformulated and added to as new requirements arise resulting from its use by researchers in the description of different languages, interlanguages and dialects. It is these developments, which have occurred over more than a decade and particularly in the last two years, together with the basic pillars of the method, which are presented in this article.

Keywords: Melodic Analysis of Speech method (MAS), Intonation, Acoustic analysis, Perception tests, semi-automatic analysis.

1 Introduction

This paper presents the most relevant characteristics of the Melodic Analysis of Speech (MAS) method, together with the developments that have taken place to date¹. It was proposed by Cantero in 1999, published in 2002, and since then has been used by various researchers, initially to describe languages and interlanguages and later dialect variants and aspects of paralinguistic intonation (in relation to the speaker's intentions and the communicative context). Currently, there are open lines of research on description and analysis relating to different aspects of intonation in different languages.

Traditionally, intonation has been one of the aspects of speech characterisation that has been greatly ignored by linguists. The first people to show an interest in describing intonation were authors from the *British school*. Authors such as Jones (1909), Palmer (1922) and Armstrong

¹ This paper is part of the research project financed by the Ministry of Economy and Competitiveness *Analysis of Speech and Teaching Models*, ref. FFI2013-41915-P.

& Ward (1926) aimed to write manuals designed for the correct teaching of English. In their work, they provided melodic curves, their context and meaning, so that learners could imitate them. In later decades, other linguists followed this tradition, including O'Connor & Arnold (1961), Crystal (1969), Cruttenden (1986) and the American, Bolinger (1986, 1989). Close to this tradition, although with original contributions that have greatly influenced intonation studies for the Spanish language, Navarro Tomás published his manual for spanish intonation in 1944, designed as a practical language manual and a theoretical treatise on Spanish intonation.

Also based on the phonetic characterisation of intonation, authors of the Dutch school, t'Hart, Collier & Cohen (1990) and their *IPO model* (Institute for Perception Research) are of note, as they provide a stylisation of the intonation curves through the selection of relevant pitch movements in the melodic curve, eliminating other pitch variations.

At the same time as these schools, from a structural perspective of the phenomenon and a phonological viewpoint, linguists of the *American tradition* emerged with their level analysis proposal; authors such as Pike (1945) and Trager & Smith (1951), among others, described the curve based on four pitch levels, four stress levels (primary, secondary, etc.) and junctures (marking the beginning and ending of the phrase).

Along this baseline of phonology, and from the theoretical approach of generative phonology, stems the *Autosegmental Metrical model* (Pierrehumbert, 1980, 1987), which, based on the metrical structure of the phrase, suggests the representation of its pitch variations using two levels: H (high) and L (low). For this model, during the 1990s, the ToBI (Tone and Break Indices) transcription system was developed for English (Silverman et al., 1992; Beckman & Hirschberg, 1994), as well as systems for other languages, including Italian (ToBIt, Avesani, 1995), German (GToBI, Grice et al., 1996) and Spanish (Sp_ToBI, Beckman et al., 2002; Prieto & Roseano (eds.), 2010), among others, and a transcription variant for Dutch (ToDI, Gussenhoven et al., 1999).

Later, and influenced by the Autosegmental Metrical model, the Aix-en-Provence model emerged, also generative, which suggested obtaining phonological forms of the prosodic system of different languages. To do so, it follows an automatic styling process using the MOMEL (MOdelling MELOdy) algorithm and the INTSINT notation model (Hirst et al., 2000).

In this context, the *Melodic Analysis of Speech* (MAS) model aims to provide a robust approach for the acoustic analysis of intonation, regardless of its phonological interpretation. It is a formal and objective method that provides the researcher with a way of analysing intonation, described in detail in the protocol established in 2009 by Cantero & Font-Rotchés² and with a way of interpreting the data from three different levels of intonation: prelinguistic, linguistic and paralinguistic (Cantero, 2002).

² There is an English version in Font-Rotchés & Cantero (2009).

This protocol is divided into three sections: a) the identification of melodic units in a corpus of spontaneous speech; b) the development of an acoustic phase, including the determination of relevant frequency values and standardisation; and lastly, c) a perception phase, during which the analyses and interpretation of data is validated. It remains the same for the procedure described below, although with some new contributions resulting from research, such as matters regarding labelling or the relevance of a number of values in the analysis that have proven to be important for some levels of intonation. Other significant developments include the creation of the semi-automated script by Mateo (2010a), which has also evolved over the years, adapting to the requirements of the group's research.

Linguistic intonation: melodic patterns and dispersion margins for Peninsular Spanish (Cantero & Font-Rotchés, 2007), Cuban Spanish (García Riverón et al. 2010), Catalan (Font-Rotchés, 2007), Brazilian Portuguese (Araújo, 2014; Cantero & Font-Rotchés, 2013; Sena, 2013; Silva, 2009), German (Torregrosa, 2015; Torregrosa & Font-Rotchés, 2017) and Chinese (Kao, 2011).

Paralinguistic intonation: focusing on politeness and impoliteness for Spanish (Devís, 2011a) and Catalan (Devís & Cantero, 2014); mechanisms of focus in Peninsular Spanish (Cantero et al., 2005), South American Spanish (Pereira, 2014; Ruiz, 2011), Catalan (Font-Rotchés, 2011, 2014) and of professional speakers (Font-Rotchés & Machuca, 2010; Font-Rotchés & Paloma, 2012; Torrent, 2015); and an initial approach to emotional intonation (Cantero, 2014).

⁸ See a compendium of the first ten years of work in Various Authors (2009) and a more recent revision in *Phonic* magazine, vol. 9-10 (2013-2014). <http://revistes.ub.edu/index.php/phonica/index>

⁹ <http://www.ub.edu/lfa/>

Much of this research is still on-going. Currently, work is being made on melodic patterns for Portuguese, German and English, as well as different studies on dialects of Catalan and American Spanish. We have also begun working on the educational applications of our intonation research, particularly on paralinguistic intonation (Devís, 2015; Devís & Bartolí, 2015).

Among the urgent research tasks we propose is the implementation of the script for Praat in a new version that goes beyond melodic analysis and allows the standardisation of intensity (dynamic analysis) and duration, permitting a complete *prosodic analysis* of speech.

In effect, our method only allows the analysis of melodies. However, as we look further into the analysis of spontaneous speech and the prelinguistic and paralinguistic levels of intonation, we find differences that go beyond the strictly melodic, related to the dynamics and the relationships of duration between the melodic units, which doubtless play a very important role in speech.

Therefore, the next step we will take in the analysis of intonation will be the Prosodic Analysis of Speech (Cantero, 2019).

6. References

- Alfonso, R. (2010). *El vocalismo del español en el habla espontánea*. PhD thesis. Barcelona: Universitat de Barcelona.
- Araújo, M. (2014). Entonação das interrogativas e das declarativas do português brasileiro falado em Minas Gerais: Modelos para o Ensino de Línguas. (Masters Dissert.). Universidade de Brasília.
- Armstrong, L. E. & Ward, I. C. (1926). Handbook of English Intonation. Leipzig/Berlin: Teubner.
- Avesani, C. (1995). ToBIT. Un sistema di trascrizione per l'intonazione italiana. In Lazzari, G. (Ed.), Atti delle V Giornate di studio del gruppo di fonetica sperimentale (pp. 85–98). Trento: Sezio editoria ITC.
- Baditzné, K. (2012). Spanish Intonation of Hungarian Learners of Spanish; Yes or No Questions. Biblioteca phonica, 15. Barcelona: Laboratori de Fonètica Aplicada UB. Retrieved from http://www.publicacions.ub.edu/revistes/phonica-biblioteca/15_Kata.pdf (accessed 9/4/2019)
- Ballesteros, M. P. (2011). La entonación del español del norte. PhD thesis. Universitat de Barcelona. Retrieved from <https://www.tdx.cat/handle/10803/109963> (accessed 9/4/2019).
- Ballesteros, M. P. & Font-Rotchés, D. (2019). Acoustic analysis of intonation: Comparison between two dialects of Spanish from the north of the peninsula. Lingua, 221, 49-71.
- Beckman, M., Díaz-Campos, M., Tevis McGory, J. & Morgan, T. A. (2002). Intonation across Spanish, in the Tones and Break Indices framework. Probus, 14, 9–36.
- Beckman, M. & Hirschberg, J. (1994). ToBI annotation conventions. The Ohio State University Research Foundation.
- Boersma, P. & Weenink, D. (2019). Praat: Doing Phonetics by Computer (Computer program). Version 6.1.02. Retrieved from <http://www.praat.org>.
- Bolinger, D. L. (1986). Intonation and its parts. Stanford: Stanford University Press.
- Bolinger, D. L. (1989). Intonation and its uses. Stanford: Stanford University Press.

- Cabedo, A. (2013). Sobre prosodia, marcadores del discurso y unidades del discurso en español: evidencias de un corpus oral espontáneo. *Onomázein*, 28, 201–213.
- Cantero, F. J. (1999): Análisis Melódico del Habla: principios teóricos y procedimiento. Actas del I Congreso de Fonética Experimental (pp.127-133). Tarragona: Universitat Rovira i Virgili.
- Cantero, F. J. (2002). Teoría y análisis de la entonación. Barcelona: Edicions Universitat Barcelona.
- Cantero, F. J. (2014). Códigos de la entonación y entonación emocional. In Comunicación, Cognición, Cibernétic@. Actas del 31.er Congreso Internacional de la Asociación Española de Lingüística Aplicada (pp. 618–629). Tenerife: Universidad de la Laguna.
- Cantero, F. J. (2016). Corpus de habla espontánea para el estudio de la entonación. In: 53 reflexiones sobre aspectos de la fonética y otros temas de lingüística (pp. 151–160). Barcelona: Laboratori de Fonètica de la Universitat de Barcelona.
- Cantero, F.J. (2019): Análisis prosódico del habla: más allá de la melodía. In Álvarez, M.R.; Muñoz Alvarado, A. & Ruiz, L. (eds.): *Comunicación Social: Lingüística, Medios Masivos, Arte, Etnología, Folclor y otras ciencias afines*. Vol. II. Santiago de Cuba: Ediciones Centro de Lingüística Aplicada.
- Cantero, F. J., Alfonso, R., Bartolí, M., Corrales, A. & Vidal, M. (2005). Rasgos melódicos de énfasis en español. *Phonica*, 1, 1–40.
- Cantero, F. J. & Devís, E. (2011). Análisis melódico de la interlengua. In Hidalgo, A.; Congosto, Y.; Quilis, M. (eds.): El estudio de la prosodia en España en el siglo XXI: perspectivas y ámbitos. Anejo nº 75 de la Revista Quaderns de Filología (pp. 285–300). València: Universitat de València.
- Cantero, F. J. & Font-Rotchés, D. (2007). Entonación del español peninsular en habla espontánea: patrones melódicos y márgenes de dispersión. *Moenia. Revista Lucense de Lingüística y Literatura*, 13, 69–92.
- Cantero, F. J. & Font-Rotchés, D. (2009). Protocolo para el análisis melódico del habla. *Estudios de Fonética Experimental*, 18, 17–32.
- Cantero, F. J. & Font-Rotchés, D. (2013). The intonation of absolute questions of Brazilian Portuguese. *Linguistics and Literature Studies*, 3, 142–149.
- Cortés, M. (2004). Análisis acústico de la producción de la entonación española por parte de sinohablantes. *Estudios de Fonética Experimental*, XIII, 142–149.
- Cruttenden, A. (1986). Intonation. Cambridge: Cambridge University Press.
- Crystal, D. (1969). Prosodic systems and intonation in English. Cambridge: Cambridge University Press.
- Devís, E. (2011a). La entonación de (des)cortesía en el español coloquial. *Phonica*, 7, 36–79.
- Devís, E. (2011b). La entonación del español hablado por italianos. *Didáctica. Lengua y Literatura*, 23, 35–58.
- Devís, E. (2015). Contextos para una aplicación didáctica de la entonación atenuadora en español. *Rilce. Revista de Filología Hispánica*, 31(1), 154–170.
- Devís, E. & Bartolí, M. (2015). Propostes didàctiques d'entonació de cortesia atenuant per al nivell B1 de català com a llengua estrangera. In Anejo 7 de la Revista Normas. *Revista de Estudios Lingüísticos Hispánicos*. Adrián Cabedo Nebot (ed.): Perspectivas actuales en el análisis fónico del habla: tradición y avances en la fonética experimental (pp. 199–210).
- Devís, E. & Cantero, F. J. (2014). The intonation of mitigating politeness in Catalan. *The Intonation of Mitigating Politeness in Catalan*, 10(1), 127–149.
- Estebas-Vilaplana, E. & Prieto, P. (2008). La notación prosódica en español. Una revisión del Sp_ToBI. *Estudios de Fonética Experimental*, XVII, 263–283.

- Face, T. & Prieto, P. (2007). Ising accents in Castilian Spanish: a revision of Sp_ToBI. *Journal of Portuguese Linguistics*, 6.1, 117–146.
- Fonseca, A. (2013). Caracterización de la entonación del español hablado por brasileños. PhD Thesis. Universitat de Barcelona. Retrieved from https://www.tesisenred.net/bitstream/handle/10803/134929/01.AFdO_1de3.pdf?sequence=1&isAllowed=y (accessed 9/4/2019).
- Font-Rotchés, D. (2007). L'entonació del català. Barcelona: Publicacions de l'Abadia de Montserrat.
- Font-Rotchés, D. (2011). Èmfasis bàsics de l'entonació en els contorns del català central. In Lloret, M.R.; Pons, C.: Noves aproximacions a la fonologia i la morfologia del català (pp. 193–216). València: Institut Interuniversitari de Filologia Valenciana.
- Font-Rotchés, D. (2014). Rasgos melódicos de la entonación paralingüística de foco. In Díaz Galán et al. (eds): Comunicación, Cognición, Cibernetik@. Actas del 31 Congreso Internacional de la Asociación Española de Lingüística Aplicada. Tenerife: Universidad de la Laguna.
- Font-Rotchés, D. & Cantero, F.J. (2009). Melodic Analysis of Speech Method applied to Spanish and Catalan. *Phonica*, 5, 33–47.
- Font-Rotchés, D. & Machuca, M. (2010). Énfasis en los eslóganes publicitarios de radio y televisión. Icono 14. Revista de Comunicación y Tecnologías Emergentes, Actas n. A4, 591–605.
- Font-Rotchés, D. & Mateo, M. (2013). Entonación de las interrogativas absolutas del español peninsular del sur en habla espontánea. *Onomázein*, 28, 256–275.
- Font-Rotchés, D. & Mateo, M. (2018). Melodías para confirmar, preguntar, sugerir o pedir en español. *Phonica*, 13, 49–67.
- Font-Rotchés, D. & Paloma, D. (2012). Tendencias entonativas en los titulares televisivos en catalán. *Círculo de Lingüística Aplicada a La Comunicación*, 51, 50–81.
- García Riverón, R., Bermúdez, M., Pedrosa, A. & Marrero, A. (2010). El sistema de entonación del español de Cuba a la luz del modelo de análisis melódico del habla. *Phonica*, 6, 3–25.
- Grice, M., Reyelt, M., Benzmüller, R., Mayer, J. & Batliner, M. (1996). Consistency in transcription and labelling of German intonation with GToBI. In Bunnell, T.; Idsardi, W. (Eds.), Proceedings of the 4th International Conference on Spoken Language Processing (pp. 1716–1719). New York Institute of Electrical and Electronic Engineers.
- Gussenhoven, C., Rietveld, T. & Terken, J. (1999). ToDI: Transcription of Dutch Intonation. Retrieved January 5, 2019, from <http://gep.ruhousing.nl/carlos/todisun-ah.pdf> (accessed 9/4/2019).
- Hirst, D. J., Di Cristo, A. & Espesser, R. (2000). Levels of representation and levels of analysis for the description of intonation systems. In Home, M. (Ed.), Prosody: Theory and Experiment (pp. 51–87). Dordrecht: Kluwer Academic Press.
- Jones, D. (1909). Intonation Curves. Leipzig/Berlin: Teubner.
- Kao, W. L. (2011). La entonación de enunciados declarativos e interrogativos en chino mandarín hablado por taiwaneses. (Masters Dissert.). Universitat de Barcelona, Barcelona.
- Liu, Y. H. (2005). La entonación del español hablado por taiwaneses. Biblioteca Phonica, 2. Laboratori de Fonètica Aplicada (UB). Retrieved from <http://www.publicacions.ub.edu/revistes/phonica-biblioteca/> (accessed 9/4/2019).
- Martínez, D. (2015). La importancia del factor prosódico en el estudio de los marcadores del discurso: algunos problemas de su análisis acústico-melódico. *Círculo de Lingüística Aplicada a La Comunicación*, 62, 105–124.

- Martorell, L. (2010). Les interrogatives absolutes de l'espànyol parlat per suecs. (Masters Dissert.). Universitat de Barcelona. Retrieved from <http://deposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/32302/1/Treball%20fi%20m%C3%A0ster%20Laura%20Martorell.pdf> (accessed 9/4/2019).
- Mateo, M. (2010a). Protocolo para la extracción de los datos tonales y curva estándar en análisis melódico del habla (AMH). *Phonica*, 6, 49–90.
- Mateo, M. (2010b). Scripts en Praat para la extracción de datos tonales y curva estándar. *Phonica*, 6, 91–111.
- Mateo, M. (2014). La entonación del español meridional. PhD thesis. Universitat de Barcelona. Retrieved from <http://deposit.ub.edu/dspace/handle/2445/53156> (accessed 9/4/2019).
- Navarro Tomás, T. (1944). Manual de entonación española. New York: Hispanic Institute.
- O'Connor, J. D., & Arnold, G. F. (1961). Intonation of colloquial English. London: Longman.
- Palmer, H. E. (1922). English Intonation, with systematic exercises. Cambridge: Heffer.
- Pereira, D. I. (2014). Patrones y mecanismos prosódicos de cuantificación e intensificación en construcciones exclamativas. PhD thesis. Universidad de Concepción (Chile).
- Pierrehumbert, J. B. (1980). The Phonology and Phonetics of English Intonation. PhD thesis. MIT.
- Pierrehumbert, J. B. (1987). The Phonology and Phonetics of English Intonation. Bloomington: Indiana University Linguistics Club.
- Pike, K. L. (1945). The intonation of American English. Ann Arbor: University of Michigan Press.
- Pons, J. (2007). La ràdio en menorquí i l'entonació de les preguntes parcials. *Phonica*, 7, 100–117.
- Prieto, P. & Roseano, P. (eds.). (2010). Transcription of Intonation of the Spanish Language. München: Lincoln Europa.
- Ruiz Mella, M. (2011). Determinación de la incidencia de la entonación en la producción y percepción de oraciones declarativas con focalización de tipo contrastiva en hablantes de español de Concepción. PhD thesis. Universidad de Concepción (Chile).
- Sena, R. (2013). A entonação no processo de ensino-aprendizagem de PLE. Proposta didática para o ensino de modelos de entonação interrogativa do português do Brasil-Estado de São Paulo. (Masters Dissert.). Universidade de Brasília.
- Silva, C. (2009). Análisis melódico de declarativas e interrogativas absolutas en español/LE. *Phonica*, 6, 92–113.
- Silverman, K., Beckman, M., Pitrelli, J., Ostendorf, M., Wighman, C., Price, P. & Hirschberg, J. (1992). ToBI. A standard for labelling English prosody. In Ohala, J. et. al. (Eds.), Proceedings of the 1992 International Conference on Spoken Language Processing (Vol. 2). Edmonton: University of Alberta.
- t'Hart, J., Collier, R. & Cohen, A. (1990). A perceptual study of intonation. An experimental-phonetic approach to speech melody. Cambridge: Cambridge University Press.
- Torregrosa, J. (2015). Una propuesta metodológica para el análisis melódico de enunciados orales espontáneos con partículas modales del alemán. *Revista de Filología Alemana*, 23, 193–212.
- Torregrosa, J. & Font-Rotchés, D. (2017). Melodic patterns of absolute interrogative utterances in northern German in spontaneous speech. *Linguistics*, 55(6), 1311–1335.
- Torrent, N. (2015). Barberà i Cuní: dos models entonatius per a programes informatius. *Phonica*, 15, 87–102.
- Trager, G. L. & Smith, H. L. (1951). An outline of English Structure. Norman, Okla: Battenburg Press.

Various Authors (2009): Análisis Melódico del Habla (AMH): 1999-2009. Biblioteca Phonica, 10. http://www.publicacions.ub.edu/revistes/phonica-biblioteca/10_AMH.pdf (accessed 9/4/2019).

EUSKARA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN: AFRIKATUETAN BARNA¹⁰

Iñaki Gaminde, Naia Eguskiza eta Irati De Pablo

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

inaki.gaminde@gmail.com, naia.egusquiza@ehu.eus, irati.depablo@ehu.eus

Laburpena:

Lan honetan euskararen lekua ikertu nahi da munduko hizkuntzetan afrikatuei dagokienez. Horretarako, euskara besteen artean kokatzekotan, 600 hizkuntzaren afrikatuek osatutako datu basea osatu da lau irizpide nagusi erabilita: (a) hizkuntza bizirik egotea XXI. mendean; (b) zonalde geografiko guztiak ordeztauta egotea; (c) hizkuntza familia guztiak ordeztauta egotea; eta (d) bibliografia nahikoa egotea. Euskarari dagokionez, erkaketak egiteko euskara estandarra oinarritzat hartu bada ere, barietateetan barna kausitzen diren afrikatuen tasun artikulatorioak eta akustikoak errepasatzen dira, oraindik ikertzeko dauzkagun arazo batzuk agirian jartzekotzat. Euskararen barietateetako eta gainerako hizkuntzen tasunez jardundakoan, afrikatuen hedadurak alderatzeko hizkuntzen ratio bi kalkulatu dira, bata hizkuntzaren fonema guztien araberakoa eta bestea, berriz, kontsonanteen araberakoa. Ratio horien arabera sailkatu ahal izan dugu euskara besteen artean. Ondorioetan ikusi dugu ezen, barietate geografikoak, sozialak eta estilistikoak aztertzean gai hau aurrerantzean ere sakontzeko interesgarria izan daitelarria. Bestalde, ikusi dugu euskararen afrikatuen sistema hizkuntza gehienetan bide nagusian kokatzen dela, bai ahoskatzeo erei dagokienez, bai eta ratioei dagokienez ere.

Hitz gakoak: Afrikatuak, tipología, fonología, fonética acústica y articulatoria

Abstract:

The aim of this work is to investigate the place of the Basque language in relation to affricates in the world's languages. To this end, in order to situate Basque among others, a database of affricates of 600 languages of the world has been compiled using four main criteria: (a) language being alive 21st century; (b) there must be represented all geographical areas; (c) there must be represented all language families; and (d) there must be sufficient bibliography. The standard Basque has been used to analyze the articulatory and acoustic rates of affricates that occur across varieties, in order to reveal some of the problems that are still investigating. In relation to the varieties of the Basque language and the other languages, two ratios of languages to compare the size of the affricates have been calculated, one for all phonemes of the language and the other for consonants. With those ratios we have been able to classify Basque among other languages. In conclusion, we have seen that, when analyzing geographical, social and stylistic varieties, this topic may be interest to deepen in the future. On the other hand, we have seen that the affricate

¹⁰ Ikerketa hau burutu da IT1028/16 (Eusko Jaurlaritza) eta GIU 16/22 (Euskal Herriko Unibertsitatea) projektuen barnean eta UPV/EHUK doktoretza aurreko formakuntzan dagoen pertsonala kontratatzeko (PIF) emandako laguntza ekonomikoari esker

system of Basque is located in the main path of most languages, both in terms of pronunciation and in terms of ratios.


Key words: Affricates, typology, phonology, acoustic and articulatory phonetics

1. Sarrera


Izenburuan adierazi gura izan den moduan, euskara buruan mundura irten gura izan dugu jakiteko inorenak lagun diezagukeen gurea hobeto ulertzen. Txango hau egin ondoren, konturatu gara asagoko intxaurrek hamalau badauzka ere, parajetuta, lautan geratzen direla eta gehienetan, gurean legez, txakurrak ortozik dabiltzala. Hala ere, lan honen agiriko zein ezkutuko helburuetarako ona izan daiteke hor gaindi dagoenaz zerbait jakitea. Honenbestez, lan honen helburua da munduko hizkuntzetan euskararen lekua ikertzea afrikatuei dagokienez. Egiteko honetarako euskara estandarraren ereduaz aztergaitzat hartu dugun arren, afrikatuen arlo honetan ikertzeke ditugun arazo batzuk agirian jartzen ahaleginduko gara bide batez.

Afrikatuak herskarien eta frikarien arteko soinutzat jotzen izan dira (Martínez Celdrán, 1989; Quilis, 1993). Afrikatuen izaera definitzean ikertzaileak bat datoaz adieraztean kontsonante hauek une nagusi bi dauzkatela artikulatzean (Oñederra, 2004); lehen unean hertsigune bat gertatzen da, herskarietan bezala, baina bigarren unean arin zabaldu beharrean, apurka-apurka zabaltzen dira artikulatzaileak eta igurtzi egiten da: "This transitory friction is usually considered a part of the release burst of the stop" (Ladefoged & Maddieson, 1996: 90).


Afrikatuen artikulazioan aipatutako une bi horiez ostera VOT (Voice Onset Time) txikia ere bereiz daiteke (Gaminde et al., 2013; Gandarias et al., 2014). Lehen unean etenaldi bat gertatzen da herskarietan legez, bigarrena leherketa unea da eta leherketa barra bat agertzen da, azkenik, hirugarren unean zarata sortzen da. Herskarietan ez bezala, aire ibilbidea zabaltzen denean, artikulatzaileak oso hurbil geratzen dira eta zarata sortzen da. 1. irudiko espektrograman hiru uneak erakusten dira ondoko bokalerako formakinen trantsizioekin batera.



Afrikatuak akustikoki aztertzeko izari batzuk proposatu dira; izari horiek bost multzotan sailka ditzakegu: iraupena, energia, une espektralak, espektroaren itxura eta ondoko bokalen formakinen trantsizioak. Iraupen arloan hiru neurri proposatu dira (Gaminde et al., 2013): une herskariaren edo hertsigunearren iraupena, leherketaren iraupena eta une frikariaren iraupena. Energia arloan neurri berberak proposatu dira (Gaminde et al., 2013): une herskariaren energia, leherketaren energia eta une frikariaren energia. 2. irudiko espektrograman ikusten den moduan, aldameneko bokalen aldean afrikatuak energia baxuagoa dauka; aldi berean, une herskariaren eta frikariaren arteko aldea ere bertan ikus daiteke.



Une espektraletan lau neurri proposatu dira (Fulop 2011; Hualde 2010; Gaminde et al., 2012, 2013; Gandarias et al., 2014; Jongman et al., 2000; Nissen eta Fox, 2005; Silbert & Jong, 2008), grabitate zentroa, desbiderapena, asimetria eta kurtosia. Une frikariaren espektroaren itxurari dagokionez, 3. irudiko espektrograman ikusten den moduan, energiaren kontzentrazioa altuera desberdinetan gertatzen da afrikatu motaren arabera. Adierazle akustiko hau askotan erabili da (Urrutia et al., 1988, 1989, 1991).



Azkenik, ondoko bokalen formakinen trantsizioen arloan, trantsizion iraupena eta maldak kalkula daitezke (Gaminde et al., 2013; Quilis, 1993).

Euskara estandarrako hiru afrikatu ahoskabe onartzen dira /ts/, /tʃ/ eta /tʃ/ (Hualde, 2003, Oñedera, 2004). Hala ere, badakigu egoera ez dena bat bera barriate guztieta. Afrikatu ahostunak egon daude eta barriate askotan ahoskabeen kopurua murriztu da; hau guztia xehekiago aztertuko dugu 4. atalean.

Lan hau sei ataletan banatuta aurkezten dugu; sarrera honen osteko bigarren atalean corpusa eta berau osatzeko metodologia aurkeztuko ditugu, hirugarren atalean afrikatu motak aztertuko dira, laugarrenean euskararen afrikatuez jardungo dugu, bosgarrenean afrikatuen hedaduraz jardungo dugu eta, azkenik, seigarren atalean ondorio nagusiak eta hurrengo lanetarako proposamen batzuk laburbilduko ditugu.

2. **Corpusa eta metodologia**

Lan hau burutu ahal izateko baliabide bibliografikoetara jo behar izan dugu gehienbat. Munduko hizkuntzetan topa daitezkeen afrikatuak aztertu ahal izateko 600 hizkuntzako datu basea egin dugu. Datu basean agertzen diren hizkuntzak aukeratzeko lau irizpide nagusi erabili dira: (a) hizkuntza bizirik egotea XXI. mendean; (b) zonalde geografiko guztiak ordeztauta egotea; (c) hizkuntza familia guztiak ordeztauta egotea; eta (d) bibliografia nahikoa egotea.

Lehen irizpideari garrantzia eman diogu, izan ere, eraz dauzkagun datu base batzuetan ez dira bereizten desagertu diren hizkuntzak eta bizirik daudenak (Gary eta Fenning, 2018; Moran et al., 2014; Lev et al., 2015; Maddieson et al., 2018). Datu horiek datu baseetan agertzen diren arren, hizkuntza guztiak informazioak batera agertzen dira. Ez da erraza jakitea zer den hizkuntza bat bizirik egotea edo ez (Ethnologue-n, Gary eta Fenning, 2018, irizpide batzuk ematen dira); gure kasuan, XXI. mendean hiztunak eduki baditu hizkuntza batek, bizirik dagoela konsideratu dugu.

Munduko zonalde guztieta hizkuntzak izateko, irizpide kuantitatiboak erabili ditugu; horrela bada, aukeratu ditugun hizkuntz kopuruak eta ehunekoak 1. taulan agertzen direnak dira kontinenteka (4. irudiko mapan banaketa erakusten da).

Kontinentea	Kopurua	%
Afrika	180	30
Amerika	90	15
Asia	180	30
Europa	30	5
Ozeania	120	20
1. taula: Hizkuntzen kopuruak eta ehunekoak kontinenteka.		



4. irudia: Datu baseko hizkuntzen hedadura.

Era berean, hizkuntz familia guztiak eta isolatuta dauden hizkuntzak ere ordezta agertzen dira; hemen ere ahalegindu gara ordezkaritza proportzionala izan dadin. Familien araberako sailkapenean WALSeK (Dryer & Haspelmat, 2013) erabiltzen duenari jarraitu diogu.

Azkenik, bibliografia nahikoa egotea ere irizpide garrantzitsua izan da hizkuntza aukeratzeko unean, izan ere, hizkuntza askoren gainean izena eta kokagunea baino ez dakigu. Inventario fonologikoak osatzeko nagusiki hiru datu base erabili dira PHOIBLE (Moran et al., 2014), SAHPHON (Lev et al., 2015) eta LAPSyD (Maddieson et al., 2018). Bestalde, hizkuntzak geolokalizatzeko GLOTTOLOG datu basea (Hammarström et al., 2018) erabili da.


3. Afrikatu motak

Afrikatu motak sailka daitezke eurak biltzen dituzten tasun batzuen arabera. Klikekin batera erabiltzen diren afrikatuak bazter utzita, datu basean batu ditugun 1109 afrikatuak ondoko tasunen arabera sailka daitezke:


- (1) Aire-etoria
- (2) Ahotsa
- (3) Ahoskunea
- (4) Zabalgunea
- (5) Bigarren mailako artikulazioa
- (6) Fonazio mota
- (7) Iraupena

Lehen tasunari dagokionez, esan dezakegu afrikatu gehienak biriketatik datorren aire-etoriaren bidez egiten diren arren (1060, % 92,41), badaudela ejektiboak ere hainbat hizkuntzatan (87, % 7,59). Honelakoetan glotisaren mugimenduak erabiltzen dira airearen presioa aldatzeko aho barrunbean aire-etorriaren ibilbidea itxi edo estutzen den artean (Ladefoged & Maddieson, 1996; Oñederra, 2004). Gure corpusean afrikatu ejektiboak 38

hizkuntzatan gertatzen dira (% 6,33). 3. irudian quechueraren¹¹ ejektiboaren espektrograma paratu dugu une frikariaren ostean dagoen hutsunea ikusteko eta 6. irudiko espektrograman agertzen den ez-hasperendunarekin alderatzeko.



Ahotsari dagokionez, afrikatu gehienak ahoskabeak dira (745, % 64,95), ahostunak gutxiagotan agertzen dira (402, % 35,05). Euskararen barietate batzuetan hasierako gunean ahoskabea /tʃ/ eta ahostuna /dʒ/ topa daitezke. 7. eta 8. irudietan bakoitzeko espektro bana ematen dugu.



Ahoskuneari dagokionez, afrikatuak ezpain-horzkarietatik ubularretaraino topatzen ditugu, 2. taulan mota nagusiak agertzen dira ahoskune bakoitzeko.

¹¹ Soinuak UCLA Phonetics Lab Data orritik hartu dira.

Ez_hor	Hor_Ar	Horkari	Albeolar	Post	Erretro	Alb_Sa	Sabai	Belokoa	Ubular
p̪f	t̪θ	t̪s	t̪s	t̪ʃ	t̪ʂ	t̪c	c̪ç	k̪x	q̪χ
b̪v	d̪ð	d̪ʐ	d̪z	d̪ʒ	d̪ʐ	d̪z	j̪j	g̪ɣ	-


2. taula: Afrikatuak ahoskuneen arabera, goikoak ahoskabeak dira eta behekoak ahostunak.

3. taulan ahoskune bakoitzaren arabera agertzen diren kopuruak eta ehunekoak ematen ditugu. Bertan agertzen den moduan, post-albeolarrauk dira ehunekorik handiena daukatenak; bestalde, hortz eta albeoloetan egiten direnekin batera guztien % 81,08 biltzen dute.

Ahoskunea	Kopurua	%	Ahoskunea	Kopurua	%
Ezpain-horzkariak	23	2,01	Erretroflexuak	39	3,40
Hortzartekoak	4	0,35	Aleolo sabaikariak	34	2,96
Horzkariak	97	8,46	Sabaikariak	70	6,10
Albeolarrauk	298	25,98	Belokoak	23	2,01
Post-albeolarrauk	531	46,29	Ubularrauk	5	0,44

3. taula: Afrikatuen kopuruak eta ehunekoak ahoskune bakoitzeko.

2. eta 3. tauletan ikusi ditugun afrikatuen zabalguneetan une frikariak baino ez ditugu ikusi; une frikarien ordez albokari-frikariak ere ager daitezke, hala nola /t̪f/ eta /d̪ʒ/. Era honetakoak gutxitan agertzen dira (29, % 2,53). 9. irudian navahoeraren [t̪fʰ] paratu dugu; berorren espektrograma erkatu daiteke 8. irudiko hizkuntza beraren [t̪ʃʰ]ren espektrogramarekin.




Bigarren mailako artikulazioak gerta daitezke afrikatuekin batera; batzuk aurretik gertatzen dira (79, % 6,89) eta beste batzuk aldi berean (185, % 15,95). Aurreko artikulazioetan gehien agertzen direnak sudurkariak dira (4. taulan gehien erabiltzen direnak paratu ditugu). Aurre-hasperendunak (/t̪s/ eta /t̪ʃ/) eta aurre-herskariak (/p'kx'/ eta /t'kx'/) behin baino ez

zaizkigu agertu; aurre-hasperendunak Hopieraz eta Ojiweraz, hurrenez hurren, eta aurre-herskariak Xoo hizkuntzan.

Ez hor	Horkari	Albeolar	Post	Erretro	Belokoa
mpf	nts	nts	ntʃ	ɳts	ŋkx
mbv	ndz	ndz	ndʒ	ɳdʐ	gɣ

4. taula: Afrikatu aurre-sudurreztatuen mota nagusiak.

Aldi berean egiten diren artikulazioak lau dira: ezpainlesskariak, sabaikariak, hasperendunak eta ezpainlesskari-hasperendunak. Gehien agertu direnak hasperendunak dira ($/p^h/, /t^h/, /c^h/, /k^h/, e.a.), (148, % 12,9), 10. eta 11. irudietan quechueraren [tʃ] eta [tʃʰ] soinuen espektrogramak erakusten dira une frikariaren luzeran dagoen aldea ikusteko. Ezpainlesskarietan ($/dz^w/, /ts^w/, /tʃ^w/, /qχ^w/, e.a.) 23 jaso dira (% 2,01), sabaikarietan ($/ts^j/$ eta $/tʃ^j/$) 7 kasu jaso dira (% 0,61) eta ezpainlesskari-hasperendunetan ($/ts^{wh}/$ eta $/tʃ^{wh}/$) 5 kasu (% 0,44).$$



Fonazioari dagokionez, afrikatu murmurikatuak agertzen dira ahots arruntaren aldean (esate baterako: $/b̥v/, /d̥ʒ/, e.a.); gure datu basean 18 kasu gertatu dira (% 1,57). Afrikatu murmurikatuak 10 hizkuntzatan agertu dira, Asian 8tan (Darmiya, Gujaratera, Hindi, Jaunsariera, Kurush, Newarera, Parauk eta Sauhrastrera) eta Afrikan 2tan (Tsongera eta Xhosera).$

Azkenik, kasu gutxitan bada ere (13, %1,13), afrikatu luzeak fonematzat jotzen dira hizkuntza batzuetan (Kaukasorak diren Avarera eta Lakera, Dravidarra den Malayalamera, Niger-Kongoarra den Soninkera eta Khoisan den Kung hizkuntzan).

4. Euskararen afrikatuez

Euskara estandarrako hiru afrikatu ahoskabe onartzen dira; barietateetan, ordea, zehar afrikatuen fonema ahostunak eta ahoskabeak agertzen zaizkigu (5. taula). Orain arteko lan gehienetan afrikatu ahoskabeez arduratu dira egileak (Aranbarri, 1996; Arretxe, 1994; Barrutia, 1996; Bilbao, 2002; Errazti, 1994; Etxebarria, 1991; Gaminde, 1992, 2001, 2003a, b, 2004, 2007; Gaminde et al., 2004, 2005; Gilisasti, 2003; Hualde & Bilbao, 1992; Salazar, 2001; Txillardegi, 1980; Uriarte, 1995; Yárnoz, 2001; beste askoren artean).


	Albe. apikaria	Albe. laminarra	Sabaiaurrekoa
Ahoskabeak	$\widehat{t\$}$ ($t\$$)	$\widehat{t\$}$	$\widehat{tʃ}$ ($tʃ$)
Ahostunak	$\widehat{d\zeta}$	$\widehat{d\zeta}$	$\widehat{dʒ}$
5. taula: Fonema afrikatuak.			

Afrikatu ahostun sabaiaurrekoa Mendebaldeko zonalde batzuetan erabiltzen da (Gaminde, 2007) eta Zuberoko beste bakan batzuetan. Afrikatu ahostun apikaria Sakanan agertzen da (Hualde, 1996). Azkenik, afrikatu ahostun laminarra Ondarroan eta Lekeitio erabiltzen da, gehienbat berba berezi batzuekin “dzanga”, “dzapart”, “dzingo”, e.a. (Lekeitioko Berbak Lantialdea, 2001).

[$\widehat{dʒ}$] hitz hasieran edo sudurkariaren ostean agertzen izan da, baina bokalen artean gertatuz gero (1) arauaren bidez frikari bihurtzen izan da.

$$(1) \quad +\text{Afri} > +\text{Frik} / V __ V$$


Alofonoen deskripzioari dagokionez, [$\widehat{t\$}$] artikulatorioki afrikatu albeolar bizkarkari ahostabetzat hartzen da (Oñederra, 2004; Pagola, 1992) Hualdek laminar izatea aipatzen du bereziki (Voiceless lamino-alveolar affricate, Hualde, 2003). 12. eta 13. irudietako palatogrametan aho sabaian mihiak uzten dituen lorratzak ikus daitezke. Mutilaren kasuan artikulazioaren lorratza aho barrunbarean aurrealdean baino ez da egiten. Bestalde, kasu guztietan goiko hortzetan ere ukitzen dela ikus dezakegu, artikulazio aldetik bizkarkaria eta hertz-albeolarra dela esan dezakegu; baliteke horzkari hutsa ere egitea [$\widehat{t\$}$].



12. irudia: Mihiak uzten duen lorratza [tʂ] egitean, (neska batek egina).

13. irudia: Mihiak uzten duen lorratza [tʂ] egitean, (mutil batek egina).


Akustikoki une frikariaren energia goiko frekuentzieta indartzen dela ikus dezakegu 14. irudiko espektrograman. Espektrograman hertsigunearekin eta une frikariarekin batera leherketa barra ere ikus daiteke. 15. irudiko FFT espektrograman energiaren kontzentraziorik handiena non gertatzen den erakusten da. Aldameneko bokalaren trantsizioen iraupenek eta norabideek laguntzen dute soinu mota bereizten.



Artikulatorioki [tʂ] afrikatu albeolar apikari ahoskabetzat jotzen da (Oñederra, 2004).

Nafarroako barietateei dagokienez, hainbat egilek retroflexutzat [tʂ] jo izan dute (N'Diaye, 1970; Pagola, 1992; Salaburu, 1984; Yárnoz, 2001).

Akustikoki une frikariaren energia beheko frekuentzieta indartzen dela ikus dezakegu 16. irudiko espektrograman. Espektrograman hertsigunearekin eta une frikariarekin batera leherketa unea ere ikus daiteke. 17. irudiko FFT espektrograman energiaren kontzentraziorik handiena non gertatzen den erakusten da.



Artikulatorioki [tʃ] afrikatu sabaiaurreko ahoskabetzat hartzen dute Oñederrak (2004) eta Hualde (2003); Pagolak (1992) sabaikotzat jotzen du eta Yárnozek (2001), Bortzirietan



egindako lanean, albeolo sabaikaritzat [tʂ]. 18. eta 19. irudietako palatogrametan aho sabaian mihiak uzten dituen lorratzak ikus daitezke.

18. irudia: Mihiak uzten duen lorratza [tʃ] egitean, (neska batek egina).	19. irudia: Mihiak uzten duen lorratza [tʃ] egitean, (mutil batek egina).


Afrikatu ahoskabe biak bereizten dituzten informatzaileen adibideak paratu ditugu 20, 21, 22. eta 23. irudi multzoetan. Artikulazioa aho barrunbean atzerago egiten bada, orduan ezpainak irekiago agertzen dira. Bestalde, sabaiaurrekoaren kasuan ezpainak arean biribiltzen dira [tʃʷ] egiteraino.

[tʂ]	[tʃ]	[tʂ]	[tʃ]
20. irudia: Ezpainen irekiera maila afrikatu biak egitean (Abadiño).		21. irudia: Ezpainen irekiera maila afrikatu biak egitean (Lekeitio).	
[tʂ]	[tʃ]	[tʂ]	[tʃ]
22. irudia: Ezpainen irekiera maila afrikatu biak egitean (Mallabia).	23. irudia: Ezpainen irekiera maila afrikatu biak egitean (Arrigorriaga)		


Akustikoki une frikariaren energia laminarraren kasuan baino beherago agertzen dela ikus dezakegu 24. irudiko espektrograman. Espektrograman hertsigunearekin eta une frikariarekin batera leherketa barra ere ikus daiteke. 25. irudiko FFT espektrograman energiaren kontzentraziorik handiena non gertatzen den erakusten da.

	
24. irudia: $\widehat{[tʃ]}$ alofonoaren adierazle akustikoak.	25. irudia: $\widehat{[tʃ]}$ ren FFT espektrogramaren itxura eta energiarene kontzentrazioaren hasiera.


Artikulatorioki $\widehat{[dʒ]}$ afrikatu ahostun bizkar edo laminar albeolartzat jo dezakegu. Gorago esan dugun moduan, Ondarroan eta Lekeition erabiltzen da berba berezi batzuetan. 26. irudiko palatograman mihiak ukitze gunean uzten duen lorratza ikus daiteke; era berean, 27. irudian ezpainen irekiera maila erakusten da.



Lekeitioko $\widehat{[dʒ]}$ 28. irudiko espektrograman erakusten dugu soinu honen adierazle akustikoak agirian uzteko. 29. irudiko espektrograman energiaren kontzentrazioaren hasiera ikus daiteke.




Artikulatorioki $\widehat{[dʒ]}$ afrikatu sabaiaurreko ahostuntzat jotzen da (Oñederra, 2004). 30. irudiko palatograman mihiak ukitze gunean uzten duen lorratza ikus daiteke, 31. irudian ezpainen irekiera maila erakusten da.



[dʒ] afrikatua erabiltzen duten informatzaileek berau berba hasieran eta, Bermeon esate baterako (Gaminde et al., 2012), sudurkariaren ostean baino ez dute erabiltzen. Bokalen artean egonez gero, afrikatua frikari bihurtzen da gorago aipatu dugun arauaren arabera.


Akustikoki, 32. irudiko espektrograman soinu honen adierazle akustikorik garrantzitsuenak ikus daitezke. 33. irudiko espektrograman energiaren kontzentrazioaren hasiera agertzen da. Datu akustiko zehatzetarako Gandarias et al.en (2014) lana ikus daiteke.



32. irudia: [dʒ] alofonoaren adierazle akustikoak.

33. irudia: [dʒ] ren FFT espektrogramaren itxura eta energiaren kontzentrazioaren hasiera.

Gorago esaneko moduan, [dʒ] Arbizurako deskribatu da “ura” esateko (Hualde, 1996). 34. irudiko espektrograman Arbizuko esaldi batean agertzen da eta erkatu daiteke esaldi berean agertzen den [tʃ]rekin. Herri batzuetan ahostunaren ordez ahoskabea [ts] erabiltzen da; Lizarragako 35. irudiko espektrograman ikusten den bezala.




34. irudia: Arbizuko [dʒ]ren espektrograma.


35. irudia: Lizarragako [fʂ]ren espektrograma.

Aditz partizipioen hasieran ager daitekeen [ʃ] egile batzuen arabera (Mitxelena, 1977; Holmer & Abrahamson, 1968; Pagola, 1992; Oñederra, 2004) herskaritzat jotzen da. Beste batzuek, sail honetan barik, afrikatuaren sailean kokatzen dute (Sopelarako Markaida et al., 1993). Azkenik, egile batzuek bietako ezaugarriak dituela adierazten dute (Navarro Tomas, 1925). Hualde (2003: 16) ahoskeraren arabera honako definizioa ematen du: “Voiced palatal approximant, fricative or stop”.

36. irudiko palatograman gauzapen afrikatuaren lorrazak erakusten dira. Bertan ikusten den moduan, aire-otorriaren ibilbidea guztiz itxita agertzen da. 37. irudian ezpainen irekiera maila agertzen da.



Afrikatuaren gauzapenean glidea agertzea berorren adierazle akustiko garrantzitsutzat jotzen da (Martinéz Celdrán, 2013: 273). 38. irudiko espektrograman ez da glidea agertzen eta 39. irudiko espektrograman bai; horrenbestez, lehena [ʃ] herskaria dugu eta bigarrena [ʒ] afrikatua.



Gure iritziz euskararen bariazioaz dihardugunok badugu hemen arlo interesarri bat ikertzeko, izan ere, afrikatu kopuruaren murrizteak aukera gehiago ekarri du euren gauzapenetan, Bermeon adierazi genuen bezala (Gaminde et al., 2012) eta afrikatuaren banaketan faktore sozialek, hala nola generoak (Gaminde, 2010), estatusak, e.a.-ek garrantzi handia daukate.

5. Afrikatuuen hedadura

Gure corpusean agertzen diren 600 hizkuntzetan afrikatuak, neurri batean edo bestean, 374tan (% 62,33) erabiltzen dira eta beste 226tan (% 37,67) ez. 6. taulan kontinenteka ematen ditugu afrikatuak dauzkaten hizkuntzen kopuruak eta ehunekoak; bertan ikusten den moduan, Asian eta Ameriketan afrikatuak dauzkaten hizkuntzen ehunekorik altuenak gertatzen dira eta Ozeanian, berriz, txikiengoa (40. irudiko mapa).


Kontinentea	Hizkuntzak	Ehunekoa
Afrika	125	69,44
Amerika	66	73,33
Asia	133	73,89
Europa	19	63,33
Ozeania	25	20,83

6. taula: Afrikatuak dauzkaten hizkuntza
kopuruak eta ehunekoak kontinenteka.



40. irudia: Afrikatuak dauzkaten (gorririk) eta ez daukaten (urdinik) hizkuntzen hedadura.

Afrikatuuen hedadura zenbaterainokoa den jakiteko kalkulu batzuk egin daitezke. Batetik zenbaki absolutuak erabil daitezke; afrikatuak agertzen diren hizkuntzetan euron kopurua 1etik 20ra bitartekoia izan daiteke. Hiru multzo eginez gero, hau da, (A) bat eta hiru bitartean, (B) lau eta sei bitartean eta (C) zazpitik gorakoak, ikusten dugu hizkuntza gehienak A multzoan kokatzen direla (274, % 45,67), gero B multzokoak datoaz (74, % 12,33) eta, azkenik, C multzokoak (26, % 4,33). 41. irudiko grafikoan multzo hauetako ehunekoak agertzen dira afrikaturik ez daukaten hizkuntzen ehunekoarekin batera (Euskara A multzoan agertzen da).



41. irudia: Multzo bakoitzeko agertzen diren ehunekoak.

Afrikuak azter ditzakegu hizkuntzen inventarioetan agertzen diren fonema kopuru osoen arabera, izan ere, ez da gauza bera afrikatu bakarra edukitzea inventario txiki batean edo handi batean. Afrikatuak dauzkaten hizkuntzen azterketa eginda, ikusten dugu 1,69 eta 28,57 bitartean kokatzen direla. Lau talde egiten baditugu, A (1,64_8,37), B (8,38_15,1), C (15,2_21,83) eta D (21,84_28,57), hizkuntzak 7. taulan erakusten den bezala sailkatzen dira. Euskara B taldean kokatuta agertzen zaigu, afrikatuak % 10,71 direla.

Taldea	Hizkuntza	Ehunekoak
A	261	69,79
B	93	24,87
C	12	3,21
D	8	2,14

7. taula: Talde bakoitzeko hizkuntza kopuruak eta ehunekoak.

C taldean agertzen diren hizkuntzak Afrikan Duruma, Hadzera, Tivera eta Tsongera dira, Asian Akhera, Armeniera, Gyalrong, Karbiera, Mandarinera eta Tshangla, eta Europen Albaniera eta Poloniera. D multzokoak Afrikan Ronga, Tswanera eta Whe dira, Asian Chuanqiandan, Naxiera eta Nivkhera, eta Ameriketan Candoshi-Shapra eta Slaveyera (42. irudiko mapan erakusten dira).



42. irudia: C (berderik) eta D (gorririk) taldeetako hizkuntzak.

Hizkuntzetan bokalen eta kontsonanteen kopuruak oso desorekatuta daudenez gero, kalkulua errepikatu dugu, baina hizkuntza bakoitzaren kontsonante kopuruuen arabera. Horrela eginda hizkuntzen ehunekoak 2,33 eta 34,29 bitartean kokatzen dira. Lau talde eginez gero, A (2,33_10,32), B (10,33_18,31), C (18,32_26,3) eta D (26,4_34,29), hizkuntzak 8. taulan ikus daitekeen bezala sailkatzen dira. Euskara B taldean kokatzen da, haren ehunekoa 13,04 izanik.

Taldea	Hizkuntza	Ehunekoa
A	224	59,89
B	122	32,62
C	20	5,35
D	8	2,14

8. taula: Talde bakoitzeko hizkuntza kopuruak eta ehunekoak.

Kasu honetan C taldean agertzen diren hizkuntzak hurrengoak dira: Afrikan Kutebera, Lucahzi, Ronga, Tivera eta Tsongera; Ameriketan Fulnio eta Navahoera; Asian Akhera, Armeniera, Burushaski, Gyalrong, Karbiera, Kaxmirera, Kok Borok, Tshangla eta Tuvera; Europan Albaniera, Poloniera eta Hungariera eta Ozeanian Isebe. D multzokoak Afrikan Tswanera eta Weh dira, Ameriketan Candoshi-Shapra eta Slaveyera, eta Asian Chuanqiandan, Mandarinera, Naxiera eta Nivkhera. (43. irudiko mapan ikus daitezke multzo biotako hizkuntzen kokaguneak).



43. irudia: C (berderik) eta D (gorririk) taldeetako hizkuntzak.

6. Ondorioak

Ez da erraza honen moduko lantxo baten ondorioak laburbiltzea, hala ere, aipatu ditugun gauzarik nabarmenenak ekarriko ditugu hona berau mukurutzeko.

Lehenengo eta behin esan behar dugu afrikatu mota gehienak aho barrunbearen zonalde zehatz batean gauzatzen direla, hau da, hortzeten eta albeoloen inguruan. Zonalde horretan afrikatuak horzkariak, albeolarrok, albeolo sabaikariak eta albeolo atzekoak edo post albeolarrok izan daitezke, ahoskune zehatzari dagokionez. Mihiaren erabilerari dagokionez apikariak, laminarrak, bizkarkariak eta retroflexuak izan daitezke.

Euskararen kasuan egin diren ikerketen arabera, barietate geografikoak, sozialak eta estilistikoak aztertzean ez da arazo hau guztiz argitu, hau da, zenbat afrikatu eta zelan egiten diren ikerketa gai interesgarria da.

Euskara estandarraren afrikatuak aztertzean munduko gainerako hizkuntzen aldean ikusten dugu alde batetik, afrikatuak besteetan gehien egiten diren modukoak direla, hau da, gauzatzen direla aho barrunbearen zonalde berean eta, bestetik, hedadurari dagokionez, hizkuntza askorekin batera B taldean agertzen dela, hau da, ratioaren arabera erdiko aldean, ez ratio txikienetan ez eta handienetan ere.

7. Erreferentziak

- Aranbarri, F. (1996). *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermua: Ermuko Udala.
- Arretxe, J. (1994). *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.
- Barrutia, E. (1996). *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*. Iruña: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Dryer, Matthew S. & Haspelmath, M. (arg.) (2013). *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. Eskuragarri: <http://wals.info>, Accessed on 2018-10-25.
- Errazti, A. (1994). *Iurreta elizateko euskara eta toponimia*. Iurreta: Iurretako Udala.

- Etxebarria, J.M. (1991.) *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Euba: Ibaizabal.
- Fulop, S. A. (2011). *Speech Spectrum Analysis*. Berlin: Springer.
- Gaminde, I. (1992). *Urduliz eta Gatikako Herri hizkeren Azterketa Linguistikoa*. [Doktoretza Tesia]. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (2001). *Mungia Berbarik Berba*. Mungia: Mungiako Udala.
- Gaminde, I. (2003a). Mungialdeko herskarien eta afrikatuen txandaketaz. *Euskalingua* 2:10-17.
- Gaminde, I. (2003b). *Zaldibar Berbarik Berba*. Zaldibar: Zaldibarko Udala.
- Gaminde, I. (2004). *Berango Berbarik Berba*. Berango: Berangoko Udala.
- Gaminde, I. (2007). *Bizkaian Zehar: Euskararen Ikuspegি Orokorra*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, I. (2010) *Bizkaiko Gazteen Prosodiaz: Euskaraz eta Gaztelaniaz*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, I., Goikoetxea, A., Sanz, Z., Astobiza, O, Elgoibar, E. & Gaminde, J. (2005) *Derioztarren Euskara*. Derio: Derioko Udala.
- Gaminde, I., Legarra, H. & Romero, A. (2012). *Gramatika eta Hizkuntz Bariazioa Bermeon*. Bermeo: Bermeoko Udala.
- Gaminde, I.; Unamuno, L., Iglesias, A. & Gandarias, L. (2013). Bizkaiko neska gazteen kontsonante afrikatuen izari akustikoez. *Euskalingua* 23, 6-13.
- Gandarias, L., Plaza, J. & Gaminde, I. (2014). Lekeitioko Txistukariez: Frikariak eta Afrikatuak. *Euskalingua* 24, 6-21.
- Gary, F. & Fennig, CH. D. (eds.) (2018). *Ethnologue: Languages of the World, Twenty-first edition*. Dallas, Texas: SIL International. Eskuragarri: <http://www.ethnologue.com>.
- Gilisasti, I. (2003). *Urduliz aldeko Berba Lapikokoa*. Léxico del euskera de Uribe Kosta. Bilbo: Euskara Mankomunitatea.
- Hammarström, H., Forkel, R. & Haspelmath, M. (2018). *Glottolog 3.3*. Jena: Max Planck Institute for the Science of Human History. Eskuragarri: <http://glottolog.org>, Accessed on 2018-10-25.
- Holmer, N. M. & Abrahamson, V. (1968). Apuntes vizcaínos. *ASJU* 2, 87-141.
- Hualde, J. I. (1996). Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarri. *Uztaro*, 18, 49-60.
- Hualde, J. I. (2003). Segmental Phonology. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin. 15-33.
- Hualde, J. I. (2010). Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano. *Oihenart* 25, 89-116.
- Hualde, J. I. & Bilbao. X., (1992). A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo. *ASJU*, XXVI-1.
- Jongman, A, Wayland, R. & Wong, S. (2000). Acoustic characteristics of English fricatives. *Journal of the Acoustical Society of America* 108, 1252-1263.
- Ladefoged, P. & Maddieson, I. (1996). *The sounds of the world's languages*. Oxford: Blackwells.
- Lekeitioko Berbak Lantaldea (2001). *Itsasoa*. Lekeitioko Udala.
Aurreko lan batean erakutsi genuen bezala (Gaminde, 2016), silabaren iraupena ez da beti bat eta bera, informatzaile berak iraupen desberdina egin dezake hizkuntzaren arabera, testu motaren arabera edo kanpoko eta barneko beste eragile batzuen arabera. Hori dela eta, interesgarri iritzi diogu hau azterzeari.

Lana lau ataletan banatuta aurkezten dugu: sarrera honen osteko bigarren atalean gure azterketa egin ahal izateko erabili dugun corpora deskribatuko da eta baita bera jasotzeko, prozesatzeko eta aztertzeko erabili den metodologia ere. Hirugarren atalean datuen azterketa burutuko da. Azkenik, laugarren atalean, ondorio nagusiak laburbilduko dira.

2. **Corpusa eta Metodología**

Ikerketa honetan familia bereko 10 informatzailek hartu dute parte. Informatzaile horiek sailkatu dira hiru parametroren arabera (ikusi 2. irudiko eskema):

- Belaunaldiaren arabera: 1950. urtean edo lehenago jaiotakoak (1. belaunaldia), 1951 eta 2000 urte bitartean jaiotakoak (2. belaunaldia), eta 2000. urtetik aurrera jaiotakoak (3. belaunaldia).
- Sexuka: lehen belaunaldiaren barruan 3 andrazko eta gizonezko bat daude, bigarren aldian 3 andrazko eta 3 gizonezko eta, hirugarren belaunaldian andrazko bat eta gizonezko bat.
- Jaioterriaren arabera: lehen belaunaldiko parte-hartzaile guztiak Extremaduran jaiotakoak dira eta helduaroan Bizkaira etorri dira bizitzen, bigarren belaunaldiko andrazko bat extremaduran jaio da eta gaztetan etorri da Bizkaira bizitzen eta beste bi Bizkaian jaiotakoak dira; bigarren belaunaldiko gizonezkoei dagokienez, hirurak Bizkaian jaioak dira.

Hirugarren belaunaldiko parte-hartzaileak Bizkaian jaio dira. Eta guztien ama hizkuntza gaztelania da.


12 informatzaile		1. belaunaldia (4)	3 andrazko	(3) Extremadura	
			1 gizonezko	(1) Extremadura	
		2. belaunaldia (6)	3 andrazko	(1) Extremadura (2) Bizkaia	
			3 gizonezko	(3) Bizkaia	
		3. belaunaldia (2)	1 andrazko	(1) Bizkaia	
			1 gizonezko	(1) Bizkaia	
2. irudia: Informatzaileen inguruko informazioa.					

Erabilitako metodologiari dagokionez, informatzaileei 3. irudiko komikia erakutsi zaie eta minutu batzuen buruan komikian bertan gertatzen den istorioa azaltzeko eskatu zaie euren ama hizkuntzan. Ahozko emisioak grabatu dira, ondoren grabazioak transkribatu eta etiketatzeko.



3. irudia: Erabili den komikia.

Silaba guztiak transkribatu eta etiketatu egin dira “Praat” programaren bidez (Boersma & Weenink, 2018), 4. irudian erakusten den bezala.



4. irudia: Silaben transkripzioa praaten bidez, A taldeko neska,
Segura.

Silaben iraupenaren azterketa gehien erabiltzen den CV silaba motarekin burutu dugu. Gure azterketa burutzeko ez ditugu denak neurtu; esaldiaren amaieran agertzen direnak baztertu egin ditugu; izan ere, hauek luzeagoak izan daitezke testuaren egokitzapen pragmatikorako luzatu egiten direlako. Era berean, talde prosodikoaren hasierako gunean agertzen direnak baztertu egin ditugu, herskarien eta afrikatuen kasuan ezin neur daitezkeelako osorik.

Hizketa abiadaren aldakortasuna erkatu ahal izateko testuen talde prosodikoen batezbestekoak eta desbideratzeak erabilita aldakuntza koefizienteak kalkulatu ditugu, hau da:

$$Ak = \frac{sd}{x^-} * 100$$

Aldakuntza koefizienteen emaitzak dira gero erabili ditugunak, informatzaileen emaitzak aldagaien arabera alderatzeko.

3. Datuen azterketa


Gorago esaneko moduan, lan honetarako jaso diren testuen prosodiaren azterketaren arlo batzuk aukeratu dira: silaba motak, talde prosodikoen luzera, hizketa abiada eta silaben iraupena, hain zuzen ere. Atal honetan datuen azterketa aurkeztuko dugu segida horretan.

Testuetan jaso ditugun silabak 1.283 izan dira denetara. 1. taulan silaba moten kopuruak eta ehunekoak ematen ditugu euron osagaien arabera sailkatuta¹³ (5. irudiko grafikoa).

¹³ C kontsonantea, V bokala eta W diptongoa adierazteko erabiliko dira.

Mota	Kopurua	%
CV	798	62,20
CVC	145	11,30
V	127	9,90
CW	69	5,38
CCV	50	3,90
VC	50	3,90
CWC	41	3,20
CCVC	2	0,16
W	1	0,08
Guztira	1283	100

1. taula: Silaba moten kopuruak eta ehunekoak.



5. irudia: Silaba motak kopuruen arabera sailkatuta.

2. taulan mota nagusien kopuruak eta ehunekoak ematen ditugu informatzaileen belaunaldien arabera sailkatuta. Euren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da ($\chi^2_{(a.m.: 6)} = 23,765$; $p = 0,001$).

Belaunal	CV		CVC		V		W	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1	182	64,08	28	9,86	50	17,61	24	8,45
2	501	72,29	94	13,56	59	8,51	39	5,63
3	115	70,99	23	14,20	18	11,11	6	3,70

2. taula: Silaba mota nagusien kopuruak eta ehunekoak.

3. taulan datuak ematen dira informatzaileen generoaren arabera sailkatuta. Bertan agertzen den aldea ez da estatistikoki eragingarria.

	CV		CVC		V		W	
Belaunal	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1	479	68,33	94	13,41	87	12,41	41	5,85
2	319	72,83	51	11,64	40	9,13	28	6,39

3. taula: Silaba motak informatzaileen generoaren arabera.

Azkenik, 4. taulan datuak ematen dira informatzaileen jaioterriaren arabera sailkatuta. Bertan agertzen den aldea estatistikoki esanguratsua da ($\chi^2_{(a.m.: 3)} = 18,957$; $p = 0,000$).

	CV		CVC		V		W	
Belaunal	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1	269	66,09	45	11,06	67	16,46	26	6,39
2	529	72,27	100	13,66	60	8,20	43	5,87

4. taula: Silaba motak informatzaileen jaioterriaren arabera.

Silaba hasiera hutsa izan daiteke (178, % 13,87) edo kontsonante bat (1053, % 82,07) edo bi (178, % 4,05) egon daitezke. Hasierarik arruntena kontsonante batekoa izatea da. 5. taulan hasiera bakoitzeko kopuruak eta ehunekoak ematen ditugu belaunaldien arabera. Aldea estatistikoki esanguratsua da ($\chi^2_{(a.m.: 4)} = 10,713$; $p = 0,03$).

	C		CC		\emptyset	
Belaunaldia	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1	242	77,07	12	3,82	60	19,11
2	658	84,25	30	3,84	93	11,91
3	153	81,38	10	5,32	25	13,30

5. taula: Silaben hasiera informatzaileen belaunaldiaren arabera.

6. taulan datuak ematen dira informatzaileen generoaren arabera sailkatuta, bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

	C		CC		Ø	
Generoa	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Andrazkoak	644	81,11	29	3,65	121	15,24
Gizonezkoak	409	83,64	23	4,70	57	11,66

6. taula: Silaben hasiera informatzaileen generoaren arabera.

Azkenik, 7. taulan datuak aurkezten dira informatzaileen jaioterrien arabera sailkatuta. Aldea estatistikoki esanguratsua da ($\chi^2_{(a.m.: 2)} = 11,453$; $p = 0,003$).

	C		CC		Ø	
Jaioterria	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Oliva	353	77,75	18	3,96	83	18,28
Bizkaia	700	84,44	34	4,10	95	11,46

7. taula: Silaben hasiera informatzaileen jaioterriaren arabera.

Silaba guneetan bokal bakar bat egotea arruntena da (1172, % 91,35), diptongoak askozaz gutxiagotan erabiltzen dira (111, % 8,65). Diptongo hauetako 31 (% 27,93) beheranzkoak dira eta 80 (% 72,07) goranzkoak. 8. taulan datuak ematen ditugu informatzaileen belaunaldien arabera sailkatuta. Bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

	V		W	
Belaunaldia	Kopurua	%	Kopurua	%
1	281	89,49	33	10,51
2	718	91,93	63	8,07
3	173	92,02	15	7,98

8. taula: Silaba guneak informatzaileen belaunaldiaren arabera.

9. taulan datuak erakusten dira informatzaileen generoaren arabera sailkatuta. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

	V		W	
Generoa	Kopurua	%	Kopurua	%
Andrazkoak	722	90,93	72	9,07
Gizonezkoak	450	92,02	39	7,98

9. taula: Silaba guneak informatzaileen generoaren arabera.

10. taulan datuak informatzaileen jaioterrien arabera sailkatuta aurkezten dira. Kasu honetan ere aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

	V		W	
Jaioterria	Kopurua	%	Kopurua	%
Oliva	414	91,19	40	8,81
Bizkaia	758	91,44	71	8,56

10. taula: Silaba guneak informatzaileen jaioterriaren arabera.

Azkenik, kodak hutsak izan daitezke (1045, % 81,45) edo, gure corpusean, kontsonante bakarrekoak (238, % 18,55). 11. taulan datuak ematen ditugu informatzaileen belaunaldien arabera sailkatuta. Bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

	C		\emptyset	
Belaunaldia	Kopurua	%	Kopurua	%
1	46	14,65	268	85,35
2	153	19,59	628	80,41
3	39	20,74	149	79,26

11. taula: Silaba kodak informatzaileen belaunaldiaren arabera.

12. taulan datuak erakusten dira informatzaileen generoaren arabera sailkatuta. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

	C		\emptyset	
Generoa	Kopurua	%	Kopurua	%
Andrazkoak	158	19,90	636	80,10
Gizonezkoak	80	16,36	409	83,64

12. taula: Silaba kodak informatzaileen generoaren arabera.

13. taulan datuak informatzaileen jaioterrien arabera sailkatuta aurkezten dira. Kasu honetan ere aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


	C	\emptyset

Jaioterria	Kopurua	%	Kopurua	%
Oliva	74	16,30	380	83,70
Bizkaia	164	19,78	665	80,22
13. taula: Silaba kodak informatzaileen jaioterriaren arabera.				

Denetara 213 talde prosodiko jaso dugu, euron luzerak biltzen dituzten silaba kopuruuen arabera kalkulatuta. 14. taulan ematen ditugu talde prosodiko mota bakoitzeko kopuruak eta ehunekoak adierazita.

Silabak	Kopurua	%	Silabak	Kopurua	%
1	24	11,27	11	4	1,88
2	22	10,33	12	4	1,88
3	27	12,68	13	8	3,76
4	23	10,80	14	2	0,94
5	20	9,39	15	1	0,47
6	13	6,10	16	3	1,41
7	24	11,27	17	3	1,41
8	13	6,10	18	2	0,94
9	7	3,29	19	2	0,94
10	11	5,16			
14. taula: Talde prosodiko mota bakoitzeko kopuruak eta ehunekoak.					

Talde prosodikoen luzeraren arabera hiru multzo egin ditzakegu: laburrak, 1 eta 6 silaba bitartekoak (129); ertainak, 7 eta 12 silaba bitartekoak (63); eta luzeak, 13 silabatik gorakoak (21). 6. irudiko grafikoan ehunekoak ikus daitezke.



Banaketa honen arabera sailkatzen baditugu datuak informatzaileen belaunaldiak kontuan hartuta 15. taulako emaitzak lortzen dira. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

	Laburra		Ertaina		Luzea	
Belaunaldia	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1	35	62,50	20	35,71	1	1,79
2	80	62,02	35	27,13	14	10,85
3	14	50,00	8	28,57	6	21,43

15. taula: Talde prosodikoen luzera informatzaileen belaunaldiaren arabera.

16. taulan datuak ematen dira informatzaileen generoaren arabera sailkatuta. Bertan agertzen den aldea estatistikoki esanguratsua da ($\chi^2_{(a.m.: 2)} = 9,549$; $p = 0,008$).

	Laburra		Ertaina		Luzea	
Generoa	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Andrazkoak	93	64,58	43	29,86	8	5,56
Gizonezkoak	36	52,17	20	28,99	13	18,84

16. taula: Talde prosodikoen luzera informatzaileen generoaren arabera.

17. taulan datuak aurkezten dira informatzaileen jaioterriaren arabera sailkatuta. Bertan agertzen den aldea estatistikoki esanguratsua da ($\chi^2_{(a.m.: 2)} = 9,025$; $p = 0,011$).

	Laburra		Ertaina		Luzea	
Jaioterria	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Oliva	55	64,71	28	32,94	2	2,35
Bizkaia	74	57,81	35	27,34	19	14,84

17. taula: Talde prosodikoen luzera informatzaileen jaioterriaren arabera.

Artikulazio-abiadari dagokionez, orokorrean berorren batezbestekoa 5,41 silaba segundoko da; desbideratzea 1,61; minimoa 0,88; maximoa 9,09; eta heina 8,21. Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, 1. belaunaldikoen batezbestekoa 5,29 da ($sd = 1,64$), 2. belaunaldikoa 5,5 ($sd = 1,62$) eta 3. belaunaldikoa 5,25 ($sd = 1,53$), aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen ditugunean, ikusten dugu andrazkoen batezbestekoa 5,17 ($sd = 1,57$) dela eta gizonezkoena 5,92 ($sd = 1,59$), alde hori bada estatistikoki esanguratsua ($T = (a.m.: 211) - 3,235$; $p = 0,001$). Azkenik, datuak informatzaileen jaioterriaren arabera aztertuta, Olivan jaiokoena batezbestekoa 5,3 ($sd = 1,42$) dela ikusten dugu eta Bizkaian jaiokoena 5,49 ($sd = 1,73$), alde hori ez da estatistikoki esanguratsua.

18. taulan informatzaile guztien artikulazio-abiadaren batezbestekoa, desbideratzea eta aldakuntza koefizienteak ematen dira; 7. irudiko grafikoan batezbesteko eta aldakuntza koefizienteen bidez eginako dispersio grafikoa erakusten da. Bertan agertzen den bezala, gizonezkoak gaineko aldean kokatzen dira eta andrazkoak berriz beheko aldean.

Informatzaileak	X	Sd	AK
A1937	5,05	1,86	36,87
A1940	5,70	1,21	21,26
A1947	4,17	1,38	33,00
A1962	5,32	0,90	16,99
A1970	5,38	2,02	37,61
A1973	5,05	1,40	27,68
A2005	5,00	1,96	39,14
G1935	6,04	1,54	25,55
G1965	6,32	1,28	20,24
G1973	6,23	1,86	29,91
G1977	5,47	1,96	35,89
G2006	5,55	0,80	14,49
18. taula: Artikulazio-abiada.			

7. irudia: Informatzaileen sailkapena artikulazio-abiadaren arabera.

Denetara 601 silabaren iraupena neurtu dugu, euren batezbestekoa 140,14 ms.koa da, desbideratzea 43,30, minimoa 40, maximoa 320 eta heina 280. Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzean, 1. belaunaldikoen batezbestekoa 146,23 da ($sd=41,95$), 2. belaunaldikoena 136,29 ($sd=40,7$) eta 3. belaunaldikoena 147,34 ($sd=52,88$); 1. eta 3. belaunaldikoen artean ez dago alderik eta 2. belaunaldikoek silabak laburrago egiten dituzten arren, aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen ditugunean, ikusten dugu andrazkoen batezbestekoa 147,52 ($sd=43,12$) dela eta gizonezkoena 130,12 ($sd=41,57$), alde hau bada estatistikoki esanguratsua ($T = (a.m.: 599) 4,962; p = 0,000$). Azkenik, datuak informatzaileen jaioterriaren arabera aztertuta, Olivan jaiokoen batezbestekoa 152,07 ($sd=42,8$) dela ikusten dugu eta Bizkaian jaiokoena 134,75 ($sd=42,45$), alde hau estatistikoki esanguratsua da ($T = (a.m.: 599) 4,625; p = 0,000$).

Amaitzeko interesgarri iritzi diogu silaben iraupenaren eta hizketa abiadaren artean korrelaziorik dagoen azterzeari; 19. taulan informatzaile bakoitzaren CV silaben iraupenaren batezbestekoak eta hizketa abiada ematen dira batera. Pearsonen korrelazioa kalkulatuta

berori -0,765eko delazela azaltzen da, korrelazioa nahikoa altua da eta esan dezakegu zenbat eta abiada handiagoa eduki orduan silabak laburragoak izan daitezkeela, zein bestalde logikoa baita.

Informatzailea	Iraupena	Abiada
A1937	144,71	5,05
A1940	147,07	5,70
A1947	190	4,17
A1962	165,17	5,32
A1970	124,25	5,38
A1973	160	5,05
A2005	142,41	5,00
G1935	128,72	6,04
G1965	133,66	6,32
G1973	119,38	6,23
G1977	129,74	5,47
G2006	154	5,55

19. taula: Silaben iraupena eta hizketa abiada.

4. Ondorioak

Atal honetan ondorioak eta hurrengo lanak aurkeztuko dira.

Silaben frekuentziak aztertuta, ondorioztatu dugu gehien erabiltzen den silaba mota CV dela. Onartzen diren silaba motak, euron erabileren ehunekoan bidez sailkatu ditugu eta gehien erabiltzen diren bost motekin ondoko rankinga osatu dugu:

$$CV > CVC > V > VC > CW$$

Bestetik, aztertu diren tasun eta aldagaietatik, alde estatistikoki esanguratsuak ikusi dira hurrengoetan:

- (1) Silaba motetan, belaunaldiaren eta jaioterriaren arabera.
- (2) Silaben hasieretan, belaunaldiaren eta jaioterriaren arabera.
- (3) Talde prosodikoan luzeretan, genero eta jaioterriaren arabera.
- (4) Artikulazio-abiadan, generoaren arabera.

(5) Silaben iraupenetan, genero eta jaioterriaren arabera. Silaben gunetan eta kodetan ez da alde esanguratsurik ikusi.

Hurrengo lanei dagokienez, interesgarria litzateke hemen aztertu diren tasunak aztertzen jarraitzea eta Extremaduran bizi diren gainerako familiakideekin eta lortutako emaitzak ikerketa honetan egindakoekin konparatzea.

5. Erreferentziak

- Boersma, P. & Weenink, D. (2018). *Praat: doing phonetics by computer, Version 5.1.* [Computer program]. Hemen berreskuratuta: <http://www.praat.org>.
- Cutillas, J.A. (2003). *Teoría Lingüística De La Optimidad. Fonología, Morfología y Aprendizaje*. Murtzia: Murtziako unibertsitatea.
- Gaminde, I. (2010). *Bizkaiko gazteen prosodiaz: euskaraz eta gaztelaniaz*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea eta BFA.
- Gaminde, I. (2016). Hizkuntzaren eragina prosodiaren tasun batzuetan. *Euskalingua*, 29, 6-14.
- Gaminde, I.; Romero, A. & Legarra, H. (2012). *Gramatika eta Hizkuntz Bariazioa Bermeon*. Bermeo: Bermeoko Udala eta Campos Hegaluzea.
- Gaminde, I.; Olalde, A.; Etxebarria, A.; Eguskiza, N. & Gaminde, U. (2017). *Hizkuntza Aldakortasuna Larrabetzun*. Bilbo: Larrabetzuko Udala.
- Gil, J. (2007). *Fonética para profesores de español: De la teoría a la práctica*. Madrid: Arco/ Libros.
- Llisterri, J. (2013). *Experimental phonetics*. Eskuragarri: <http://liceu.uab.es/~joaquim/>.
- Moreno Cabrera, J.C. (1994). *Curso Universitario de lingüística general. Tomo II: Semántica, pragmática, morfología y fonología*. Madril: Síntesis
- Zec, D. (2007). The Syllable. In P. de Lacy (arg.), *The Cambridge Handbook of Phonology* (161-194). Cambridge: Cambridge University Press.

DISTANTZIA LINGUISTIKOA NEURTZEKO METODOAK TRANSKRIPZIO MOTAREN ARABERA¹⁴

Juan Abasolo, Aitor Iglesias, Asier Romero eta Lorea Unamuno
UPV/EHU

Juan.abasolo@ehu.eus, aitor.iglesias@ehu.eus, a.romero@ehu.eus, lorea.unamuno@ehu.eus.

Laburpena

Lan honen helburua baliatutako transkripzio motaren arabera, distantzia linguistikoak kalkulatzeko zein neurri erabili behar den eztabaidatzea da. Era honetako corpusekin lan egitean dauden bost une kritikoak identifikatu eta aztertu dira. Emaitzetan distantzia ezberdinen erabilpenaren eragina zein izan daitekeen ikusteko lau distantzia, RIV, Levenshtein, Q-gram eta ALINE , aplikatu dira Arratiako aditza jasotzen duen corpusean.

Hitz gakoak: dialektometria, distantzia linguistikoa, ALINE.

Abstract

The aim of this paper is to discuss which linguistic distances should be used in an oral corpus according to the type of transcription used. The five critical aspects that exit when working with this type of corpus are identified and examined. Four linguistic distances, RIV, Levenshtein, Q-gram and ALINE , have been used to analyse the effect on the result of each of them in the verbal corpus of the Arratia valley.

Keywords: dialectometry, linguistic distance, ALINE.

1. Sarrera

Lan honen bidez dialektometrian distantziak neurtzeko erabiltzen diren metodoez jardun eta eztabaidatu nahi dugu. Artikulu honen helburua da ondo azaltzea zein metodo aukeratu behar den corpusaren transkripzioaren arabera. Gaminderen (1984) corpusaren zati batez baliatuz, distantziak neurtzeko ohikoak diren *RIV* eta *Levenshtein* neurriak zelan aplikatzen diren ikusiko dugu eta, horietaz gain, orain arte, behintzat, Euskal Herrian egin diren lanetan erabili ez diren beste neurri bi aurkeztuko ditugu, *q-gram* (van der Loo, 2014) eta *ALINE* (Downey et. al, 2017).

Lan honek, sarreraz gain, sei atal izango ditu. Bigarren atalean erabilitako corpusaren ezaugarrien berri emango da; ostean, marko teorikoaz jardungo du, bertan zein transkripzio mota egin daitekeen aztertuko da eta baita dialektometrian egin diren ekarpenik

¹⁴ Ikerketa hau burutu da IT1028/19 (Eusko Jaurlaritza) eta GIU 16/22 (Euskal Herriko Unibertsitatea) proiektuen barnean eta UPV/EHUk doktoretza aurreko formakuntzan dagoen pertsonala kontratatzeko (PIF) emandako laguntza ekonomikoari esker.

esanguratsuenetan erabili izan ohi diren neurriak distantzia linguistikoak neurtzeko. Marko teorikoaren ondoren, lan honetan aipatutako corpusean distantzia linguistikoak neurtzeko erabili den metodologia azalduko da. Bosgarren puntuaren lortutako emaitzak aurkeztuko dira eta, azkenik, distantziak kalkulatzeko modu ezberdinek dituzten ondorioak zeintzuk diren azalduko dira. Amaitzeko, erabilitako bibliografiaren berri dugu.

2. Corpusa

Lanaren alderdi teoriko eta metodologikoarekin hasi baino lehen, erabili dugun corpusaren ezaugarriak aipatuko ditugu. Gamindek (1984) idatzitako *Aditza bizkaieraz* liburutik corpus txiki bat atera dugu. Liburu honetan Gamindek 117 herritako aditza batu zuen, herri bakoitzean 217 adizki jasoz. Guiek 117 herrietatik Arratiako herrietan batutako adizkiekin corpus txiki bat lortu dugu: 8 herri (Bedia, Lemoa, Igorre, Dima, Zeanuri, Artea, Areatza eta Zeberio) eta esandako moduan, 217 adizki herri bakoitzeko; beraz, guztira 1736 adizki izan ditugu aztergai. Adizki hauen artean Nor, Nor-Nori, Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork adizki laguntzaile gehienak batu ziren eta baita *etorri*, *eduki*, *jakin*, *ekarri* eta *eroan* aditzen hainbat adizki trinko ere. Liburuan adizki hauek transkripzio fonologiko batez izan dira transkribatuak.



1.

irudia: Gaminde (1984:azala)

Corpus hau on-line dago eskuragarri eta esan behar da oso homogeneoa dela, dialektologo berak batu duelako metodologia berari jarraituz.

3. Marko teorikoa

Lehen aipatu dugun legez, lan honekin hausnartu eta eztabaidatu nahi dugu jakiteko zein distantzia erabili behar dugun daukagun transkripzio motaren arabera. Horretarako, lehenik eta behin azaldu behar da zein transkripzio mota dauden. Orokorrean transkripzioak bi eratara egin daitezke: fonetikoki eta fonologikoki; eta transkripzio fonetikoak, zabalak edo estuak izan daitezke, transkribatzailak jartzen du muga (ikus. 1. taula). Transkripzio fonetiko estua ahalik eta informazio gehien jasotzen ahalegintzen da; zabalak, ordea, ezagarri esanguratsuenak baino ez ditu ematen; eta, beraz, fonologikora hurbiltzen da. Alfabeto fonetiko batzuk dauden arren, euskaraz gehienbat IPA erabili izan da. Euskarazko lanetan batez ere transkripzio fonologikoak erabili dira eta, hortaz, corpus linguistiko ugari dugu transkripzio mota honekin.

Transkripzio motak


Fonetikoak	Fonologikoak
Zabalak	Estuak
oro	oro
	...

1. taula: transkripzio motak

1. taulan *oro* (todo / tout) hitzaren hainbat transkripzio ikus dezakegu. Alde batetik, fonologikoa dugu, Euskal Herriko ohiko dialektologian autore gehienek erabili izan dutena (Arretxe, 1994; Carrera & García, 2005; Etxebarria, 2016; Gaminde, 1994; Zuazo, 2014 eta abar); eta, beste aldetik, fonetikoa dugu. Transkripzio mota hau Euskal Herri Hizkeren Atlasean topatu dezakegu edota Etchebest-en (2017) tesian; izan ere honen moduko lanetan zehazteko beharra dago, horrela, adbididez, Etchebestek bere lanean zortzi dardarkari mota ezberdin bereizten ditu zubererarako. Beraz, ikusi dugunez, hainbat transkripzio mota daude eta horien arabera hizkuntzalarik jakin behar du zein azterketa dialektometriko den egokiena.


Dialektometria distantzia linguistikoak neurtzeaz arduratzen den diziplina da eta honi buruz historia apur bat egiten badugu, esan daiteke Hans Goebel dela dialektometriaren aita. Berak Salzburgoko eskola sortu zuen eta bertan VDM (*Visual dialectometry*) programa garatu zuten, lehenengo arlo honetan. Euskal Herrian ezaguna da batez ere Bourciezen corpusarekin egindako lanengatik (Aurrekoetxea et al., 2004 eta 2005). VDM programak datu-matrizeekin hainbat ebaluazio-algoritmo eskaintzen ditu. RIW, GIW eta DEM antzekotasun neurriek herrien arteko antzekotasuna kalkulatzen dute datu-matrizeean. MINMWMAX, MWMAX eta MED segmentu-algoritmoekin ere lan egiteko aukera ematen du eta hainbat sinopsi-kalkulu (minimoa, maximoa, desbideratze estandarra, asimetria, eta abar) ere egin daitezke. Programa

honek aurkeztu zuen berrikuntzarik handiena izan zen datuen emaitzak islatzea Voronoi diagrammekin mapa batean, hortik *visual* hitza.



2. irudia: VDM programako webgunetik

Gaur egun, Goeblen ostean, esan daiteke beste eskola bi daudela: Groningengoa, John Nerbonne buru duela; eta Euskal Herrikoa, Gotzon Aurrekoetxea buru. Nerbonnen taldeak *Gabmap* web-aplikazioa garatu du, eta Aurrekoetxearen EUDIA Ikerketa-taldeak (UPV/EHU) *Diatech* softwarea.



3. irudia: Gabmap eta Diatech programen euren webguneetatik hartuak

Gabmapek Levenshtein neurria erabiltzen du transkripzio fonetikoetan oinarritutako distantzia linguistikoak neurtzeko. Diatechek Levenshteinez gain, RIV (Relative Index Value) eta WIV (Weighted Identity Value) distantziak ere erabiltzeko aukera ematen du. Dialektologia kuantitatiboan RIV eta Levenshtein dira maizten erabiltzen diren neurriak. Labur-labur azalduz, RIV berdintasun neurria da, erabateko berdintasuna edo ezberdintasuna markatzen duena. Adibidez, hiru erantzun hauek baditugu (*abadea*, *abadia* eta *apaiza*), RIVek esango digu hiruren arteko distantzia bera dela, erabatekoa; izan ere, neurri honentzat hiru erantzunak ezberdinak dira. Levenshtein neurriak, ordea, item bateko kodeketatik bestera pasatzeko zenbat aldaketa dauden neurtzen du. Adibidez *abadia* itemetik *abadea* itemera pasatzeko aldaketa bakarra egin behar da, horregatik neurri hau kontuan hartzen badugu, item bi hauen arteko distantzia nahiko laburra da. Honegatik guztiagatik, hizkuntzalariak ondo aztertu behar du zer erantzun eta transkripzio mota duen edota behar den azterketa egiteko. Aurrekoetxeak (Aurrekoetxea et al. 2015) proposatzen duen moduan, RIV neurria egokia da estandarizatutako edo lematizatutako datuak erkatzeko; izan ere, similaritatea edo antzekotasun maila adierazten du, alderatzen dituen bi itemak berdinak edo desberdinak diren. Gure adibideari berriro helduta, RIV distantzia erabiltzeko modu honetan lematizatu beharko genuke :

Erantzunak	Lema
<i>apaiza</i>	apaiz
<i>abadia</i>	abade
<i>abadea</i>	abade

2. taula: lematizazioaren adibidea

Horrela, RIV neurria *abade* eta *apaiz* lemen artean baino ez litzateke aplikatuko eta, beraz, *abadia* eta *abadea* erantzunen artean ez litzateke distantziarik egongo, bai ordea, *apaiza*-rekin. Levenshtein distantzia, ordea, egokiagoa da itemak euren artean erkatzeko, lema bereko transkripzio fonetikoak alderatzeko, hain zuzen.

4. Metodología

Gaminderen (1984) Arratiako corpusari RIV eta Levenshtein distantziez gain, beste bi aplikatzea proposatuko dugu: *q-gram* (van der Loo, 2014) eta *ALINE* (Downey et. al, 2008). *q-gram* distantziak, Jaccarden teorietan oinarritua, transkripzio batetik beste batera duten elementuen multzokatzeen antzekotasuna neurtzen du. *ALINE* distantziak, berriz, itemen arteko distantzia fonetikoa kalkulatzen du, itemak IPAko transkripzio fonetikoan idatzita edota erabiltzaileak egoki deritzon kodeketaren araberakoa izan.

Distantzia motak aztertu baino lehen, era honetako azterketa egiten denean, bost une kritikoak zeintzuk diren aztertuko dugu:

- a. Datuak batzea
- b. Datuen kudeaketa

- c. Distantziak kalkulatzea
- d. Multzokatze prozesua
- e. Taldekatzeko aukerak

Lehenengo une kritikoa datuak batzea da. Datu-bilketa era askotakoa izan daiteke: elkarrizketa naturaletik jasotako datuak (Ormaetxea, 2005; Makazaga, 2011); idatzizko testuetatik batutakoa (Aurrekoetxea et al., 2004 eta 2005); eta, ohikoena, González Salgadok aipatzen duen moduan, galdetegia. Euskararen inguruan galdetegi asko egin izan dira. Lehenengoetako arlo honetan Azkueren *Erizkizundi Irukoitza* izan zen (Etxaide, 1984), 1924-25ean jasotakoa; orain arte egindako handiena *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa* (Aurrekoetxea & Videgain, 1993) da eta horren gainean EHUKO EUDIA ikerketa-taldeak moldatu zuen EAS (Euskararen atlas soziolinguistiko-dialektologikoa) galdetegia (Aurrekoetxea & Ormaetxea, 2006). Talde honek EDAK (Euskara Dialettalaren Ahozko Corpusa) galdetegia ere prestatu zuen azenturako eta intonaziorako (Aurrekoetxea et al., 2009); eta, jakina, beste autore batzuek ere galdetegiak erabili dituzte bere lanak osatzeko. Dena den, galdetegiak datu batuketa errazten duen arren, ezin dira albo batera utzi dituen mugak eta eragozpenak (Dörnyei 2007). Adibidez, galdetegiaren sinpletasunak ez du ikerketan sakontzen uzten, lekuoak txarto interpreta dezake galdera (eta batzuetan ikertzaileak ere txarto galde dezake), ikertzaileak lekuoaren gain eraginak ere emaitzak baldintza ditzake; izan ere, batzuetan, lekuoek erantzuten dute inkestagileak espero duena eta ez benetan pentsatzen dutena. Maiz, lekuoek orokortzeko joera ere badute, Laboven *behatzairearen paradoxa*. Egon daitezkeen arazo hauek guztiak kontuan hartuta, ikertzaileak galdetegia egin behar du azterketaren helburua kontuan hartuta eta datuak batzen hasi baino lehen, galdetegia probatu eta balidatu.

Bigarren une kritikoa datuen kudeaketa da. Lehenik eta behin corpusa jaso behar da. Gaur egun hori egiteko modu bi daude: audio grabazioen bidez, edo bideo grabazioen bidez. Ahozko corpus bat jasotzen dugunean datuak kodifikatu egin behar dira, erabaki behar da zein sistema erabili datuak kodifikatzeko. Arestian aipatu dugunez, transkribatzeko mota batzuk ditugu, baina guztietan informazioa galtzen da (Linell, 2005) transkribatzairearen interesen arabera egiten delako; horregatik, oso garrantzitsua da argi izatea zein den azterketaren xedea, transkribatzeko sistema ikerketaren helburuaren menpe egin behar delako ezinbestean (Briz et al. 2002). Hidalgo eta Sanmartínen (2005) arabera joera bi daude datuen kodeketarako: etiketetan oinarritutako sistema bat, unibertsala izan beharko litzatekeena eta datuen konparazioak eta analisi estatistikoak egitea errazten duena; eta bestea, etiketa bako sistema bat irakurketa errazten duena. Hala eta guztiz ere, nahiz eta transkripziorik zehatzena egin eta nahi beste etiketa jarri, ez dugu inoiz izango audio artxibo batek duen informazio guztia.

Hirugarren une kritikoa distantziak kalkulatzea da. Lan honetan batez ere puntu honi erreparatuko diogu. Arestian aipatu dugun moduan, distantziak kalkulatzeko neurriak datuen transkripzioen arabera egin behar dira edo, bestela, datuek trataeraren bat beharko dute. Marko teorikoan aipatutako bi distantziez gain, RIV eta Levenshtein, lan honetan beste bi ere aztertuko ditugu: q-gram eta ALINE. Arestian aipatu dugun legez, RIV berdintasun neurria

da, erabateko berdintasuna neurten duena eta hau aplikatzeko komeni da datuak lematizatuta egotea. Levenshtein distantziak aldiz, kate edo item batetik bestera pasatzeko eman behar diren urrats minimoak kalkulatzen ditu. Bere aldaera batean, Damerau-Levenshtein distantzian, elkarren ondoan dauden sinboloen trukaketa aldaketa bakartzat onartzen da. q-gram, batuetan *k-mers*, *w-words* edo *k-tuples* ere deitua, n-gram bi kateetako bektoreen arteko diferentzia absolutuen batura da. ALINE distantzia transkripzio fonetikoekin erabiltzeko garatu zen. Metodo horrek funtsezko esanahi bertsua duten bi hizkeretako hitz pare bat kontuan hartzen ditu. Bi hitzak lerrokatuta daudela aldaketa fonetikoak antzekotasun puntuazioa sortzeko erabiltzen dira (Downey et al., 2008; 2017).

Laugarren une kritikoa multzokatze prozesua da. Puntu honetan elementu guztiak multzoka batzeko prozesua egiten da, algoritmo baten bitartez. Ward, Average eta complete dira dialektometriaren erabilienak, Diatechek aukeran ematen dituenak. Ward algoritmoak barne bariantza txikiena aukeratzen du multzoak sortzeko (Ward, 1963) eta hori da, hain zuzen ere, gure azterketan erabiliko duguna eskaintzen duen egonkortasunagatik. Baino, esan bezala, badaude beste algoritmo batzuk, hala nola, *single*, *complete*, *average*, *median*, *centroid* eta abar, zeinak erabil daitezke betiere kontuan hartuta zein den lanaren helburua. Multzokatze hori dendrograma izeneko grafikoen bidez irudikatu ohi da. Horrelakoetan multzokatze prozesu osoa antzeman daiteke, prozesuaren zuhaitz itxuraren bitartez.

Eta, azkenik, bosgarren une kritikoa zenbat talde egin erabakitzea da. Behin dendrograma daukagunean, erabaki behar dugu zenbat talde egin, hau da, multzoak erakusten dituen zuhaitza nondik moztu. Dendrogramak, clusterrak nola osatzen diren eta antzekotasun maila kontutan hartuta, datuen egitura hobeto irudikatzen duten taldeen kopurua erabakitzentzilagundu dezake. Azterketa honetan, dendrogramak ikusita, eta desberdintasunak ondo markatzeko, lau talde egitea erabaki dugu, sailkapen guztiak taldekatze egonkorrairekin alderatzeko.

5. Emaitzak


Zortzi herrik eta 1736 adizkik osatzen duten datu-basearekin lau azterketa mota egin ditugu: RIV, Levenshtein-Damerau, q-gram eta Aline. Distantzia sailkatzeko erabili den algoritmoa *Ward* izan da eta datuak tratatu barik daude, beren-beregi jaso ziren moduan erabili dira lau azterketetan.



4. irudia: Arratiako herriak

Lau azterketa hauetan clusterrek sortutako dendrograma, bi dimentsioko MDS irudia (Multidimensional Scaling) eta mapa linguistikoa eskaintzen dira.


Lehenengo azterketan, RIV distantzia erabilita, 5. irudian dauden emaitzak lortzen dira.



5. irudia: RIV distantzia

5. irudiko dendrogramari erreparatuz ikusten da herri guztien arteko distantziak oso txikiak direla. Cluster honen zuhaitzean mozketa bat egin beharko bagenu talde bi bereziko genituzke: alde batetik Areatza eta Zeanuri eta, bestetik, beste guztiak. Arestian esan dugun moduan, ezberdintasunak markatzeko, lau taldetan bereizi nahi izan dugu. Horrela, dendrograman markatu dugun legez, alde batetik Areatza eta Zeanuri daude, mapan eta MDSn urdinez; Dima beste aldetik, arrosaz; Zeberio, berdez; eta azkenik lau herri, Bedia, Lemoa, Igorre eta Artea, laranjaz.

Bigarrenean, Levenshtein distantzia Damerau-ren egokitzapenarekin erabilita, 6. irudian dauden emaitzak lortzen dira.



6. irudia: Levenshtein distantzia


RIV distantziarekin gertatzen zen moduan, Levenshteinekin ere, clusterreko dendrogramak (6. irudia) talde bi egitea iradokitzen digu: Areatza eta Zeanuri alde batetik eta, bestetik, beste guztiak. Baino mozketa beherago egiten badugu lau talde egiteko, taldekatzeak ezberdinak dira. Areatzak eta Zenurik jarraitzen dute elkarrekin, Dimak bakarrik, arrosaz; Igorrek eta Bediak, laranjaz; eta, azkenik, Arteak Zeberiok eta Lemoak, berdez.

Hirugarren azterketan q-gram (n-gram) distantzia erabili dugu. n-grama bat sekuentzia baten barne dagoen eta n elementuk osatzen duten azpisekuentzia da. 1 neurriko n-gramei unigrama deritze; 2 neurrikoei bigrama; 3 neurrikoei trigramma; eta 4tik gorakoei n-grama. Gure azterketan unigrama, bigrama eta trigramma aurkeztuko ditugu.

$d(q=1) \{d,a,r,o,i,e,s\}$	<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>daroardies</th> <th>daroardies</th> <th>darouries</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>daroardies</td> <td>0.000</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>darouries</td> <td>0.125</td> <td>0.125</td> <td></td> </tr> <tr> <td>darues</td> <td>0.375</td> <td>0.375</td> <td>0.250</td> </tr> </tbody> </table>		daroardies	daroardies	darouries	daroardies	0.000			darouries	0.125	0.125		darues	0.375	0.375	0.250
	daroardies	daroardies	darouries														
daroardies	0.000																
darouries	0.125	0.125															
darues	0.375	0.375	0.250														
$d(q=2) \{da,ar,ro,oa,ar,rd,di,ie,es\}$	<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>daroardies</th> <th>daroardies</th> <th>darouries</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>daroardies</td> <td>0.222</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>darouries</td> <td>0.545</td> <td>0.545</td> <td></td> </tr> <tr> <td>darues</td> <td>0.700</td> <td>0.700</td> <td>0.700</td> </tr> </tbody> </table>		daroardies	daroardies	darouries	daroardies	0.222			darouries	0.545	0.545		darues	0.700	0.700	0.700
	daroardies	daroardies	darouries														
daroardies	0.222																
darouries	0.545	0.545															
darues	0.700	0.700	0.700														
$d(q=3) \{dar,aro,roa,oar,oar,ard,rdi,die,ies\}$	<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>daroardies</th> <th>daroardies</th> <th>darouries</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>daroardies</td> <td>0.500</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>darouries</td> <td>0.727</td> <td>0.750</td> <td></td> </tr> <tr> <td>darues</td> <td>0.900</td> <td>0.909</td> <td>0.900</td> </tr> </tbody> </table>		daroardies	daroardies	darouries	daroardies	0.500			darouries	0.727	0.750		darues	0.900	0.909	0.900
	daroardies	daroardies	darouries														
daroardies	0.500																
darouries	0.727	0.750															
darues	0.900	0.909	0.900														

7. irudia: n-gram-en adibidea


Unigramak ematen dituen emaitzak 8. irudian aurkezten dira.



8. irudia: q-gram – q = 1

Unigramak erakusten duen dendrogramak (8. irudia) ere, multzo nagusi bi erakusten ditu. RIVEk eta Levenshteinek legez, alde batetik Areatza eta Zeanuri batzen ditu eta, bestetik, beste guztiak. Ostera, lau talde egiten baditugu, emaitzak ezberdinak dira. Lehenengo taldean segitzen dute Areatzak eta Zeanurik, urdinez; bigarren talde batean arrosaz, Dimak, Arteak eta Lemoak; Zeberiok, berdez; eta, azkenik, Igorrek eta Bediak, laranjaz.


Bigramak ematen dituen emaitzak 9. irudian ditugu.



9. irudia: q-gram – q = 2


Bigramak ere (9. irudia), lehenengo mozketa batean Areatza eta Zeanuri batzen ditu, baina, atzera ere, lau talde eginez gero, emaitzak ezberdinak dira: Zeanuri, arrosaz; Areatza, urdinez; Igorre eta Bedia, laranjaz; eta, azkenik, Dima, Artea, Zeberio eta Lemoa, berdez.

Trigramak erakusten dituen emaitzak 10. irudian ditugu.



Trigrama distantziarekin lortutako dendrogramak (10. irudia) ere, hasierako mozketa bera iradokitzen du: Areatza eta Zeanuri multzo batean. Baino, aurrekoetan bezala, lau talde bereiziz gero, emaitzak ezberdinak dira. Horrela, Areatza eta Zeanuri ditu multzo batean, arrosaz; berdez, Dima, Artea, Zeberio eta Lemoa; laranjaz, Igorre; eta urdinez, Bedia.

Azkenik, laugarren azterketan, ALINE distantzia erabilita, 11. irudian dauden emaitzak lortzen dira.



11. irudia: ALINE distantzia

Areatza eta Zeanuri batzen ez dituen distantzia bakarra ALINE da (11. irudia). Lehenengo mozketa batean, dendrogramak iradokitzen du alde batetik Dima eta Zeanuri egon behar direla eta, beste alde batetik, beste herri guztiak. Mozketa beherago egiten badugu, hurrengo talde hauek agertzen dira: Dima, urdinez; Zeanuri, arrosaz; Zeberio eta Lemoa, berdez; eta, azkenik, Bedia, Areatza, Igorre eta Artea, laranjaz.

6. Ondorioak

Dialektometrian distantziak neurtzeko erabiltzen diren metodoez eztabaidatzea izan du helburu lan honek. Azaldu nahi izan dugu corpusaren transkripzioaren arabera zein metodo aukeratu behar den. Horretarako Gaminderen (1984) corpusaren zati baten distantziak neurtzeko lau neurri erabili ditugu: RIV, Levenshtein, q-gram eta Aline. Lehenik eta behin, corpus batekin lan egiterakoan dauden bost une kritikoak aztertu ditugu eta ostean, distantziak kalkulatzeari, erreparatu diogu. Lan honetan corpora bere horretan, argitaratu zen moduan, erabili dugu aipatutako lau distantzia hauek aplikatz, eta aurreko atalean ikusi dugunez, emaitza guztiak ezberdinak izan dira. Egia esan, RIV, Levenshtein eta q-gram distantzien clusterreko dendogramek hasierako mozketa bera iradokitzen dute. Multzo bi bereizten dituzte: alde batetik, Areatza eta Zeanuri herriak; eta beste aldetik, beste herri guztiak. ALINE neurria multzokatze honetatik urruntzen da, distantzia honekin Dima eta Zeanuri multzokatzen dira alde batetik, eta bestetik, beste herri guztiak. Edozelan ere, ezberdintasunak agerian utzi nahi izan ditugunez, mozketa zuhaitzaren apur bat beherago aztertu dugu lau talde egiteko. Mozketa honi erreparatzen badiogu, emaitzak ezberdinak dira distantzia guztiekin. Honek agerian uzten du distantzia neurria aukeratzeak duen garrantzia; izan ere, aipatu dugun moduan, multzokatzeak ezberdinak izango dira distantzia neurriaren arabera.

7. Erreferentziak

- Arretxe, J. (1994): *Basauriko euskara*. Basauriko Udala
- Aurrekoetxea, G., Iglesias, A., Santander, G. & Usobiaga, I. (2015): ‘Diatech’ muga dialektalak zehazteko tresna. In Aurrekoetxea, G., Romero, A. & Etxebarria, A. (arg.). *Linguistic variation in the basque and education I*. Bilbo: UPV/EHU, 132-144.
- Aurrekoetxea, G. & Ormaetxea, J.L. (2006): “Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikoa” ikerketa-proiektua. *Euskalingua* 9, 157-163.
- Aurrekoetxea, G., Sánchez, J. & Odriozola, I. (2009): “EDAK: A Corpus to Analyse Linguistic Variation”. In Cantos, P. & Sánchez, A. *A Survey on Corpus-based Research Panorama de investigaciones basadas en corpus*. Murtzia: Asociación Española de Lingüística del Corpus, 489-503.
- Aurrekoetxea, G., & Videgain, X. (1993). Euskal Herriko Hizkuntz Atala: Galderota. *Euskeria: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 38(3), 529–648.
- Aurrekoetxea, G., Videgain, X. & Iglesias, A. (2004): "Bourcier" bildumako euskal atlaza (BBEA): I. Lexikoa. *ASJU XXXVIII*-2.
- Aurrekoetxea, G., Videgain, X. & Iglesias, A. (2005): "Bourcier" bildumako euskal atlaza (BBEA): II. Gramatika. *ASJU XXXIX*-1.
- Briz, A. & grupo Val.Es.Co (2002): *Corpus de conversaciones coloquiales*. Madrid: Arco/ Libros.
- Carrera, I. M. & García, I. (2005): *Legutiano aldeko euskara*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Dörnyei, Z. (2007): *Research methods in Applied Linguistics*. Oxford: Oxford University Press.
- Downey, S. S., Guowei S. & Norquest, P. (2017): AlineR: An R Package for Optimizing Feature-Weighted Alignments and Linguistic Distances. *The R Journal* 9 (1): 138-52.
- Downey, S. S., Hallmark, B., Cox, M. P., Norquest, P., & Lansing, J. S. (2008). Computational Feature-Sensitive Reconstruction of Language Relationships: Developing the ALINE Distance for Comparative Historical Linguistic Reconstruction. *Journal of Quantitative Linguistics*, 15(4), 340–369. DOI:10/bf4f89
- Etchebest, X. (2017): *Zuberotar Dardarkarien Bariazio Sozio-Fonetikoa*. Doktorego-tesia. UPPA & UPV/EHU.
- Etxaide, A. M. (arg.) (1984): *Erizkizundi Irukoitza*. Euskaltzaindia, Iker 3.
- Etxebarria, M. (2016): *Gorbeiako etno-ipuin eta esaundak II*. Bilbo: Euskaltzaindia & Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (1984): *Aditza Bizkaieraz*. Iruñea: UEU.
- Gaminde, I. (1994): *Bilboko Larraskituko euskaraz: Lexikoa eta Testuak*. Bilbo: Bilboko Udala.
- Hidalgo, A. & Sanmartín, J. (2005). Los sistemas de transcripción de la lengua hablada, *Oralia*, 8, 13-36.
- Linell, P. (2005): *The written language bias in linguistics. Its nature, origins and transformations*. Londres: Routledge.
- Makazaga, J. M. (2011): *Elgoibarko ahozko euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ormaetxea, J. L. (2005): *Aramaioko euskara*. Doktorego tesia. UPV/EHU.
- van der Loo, M. P. J. (2014): The stringdist package for approximate string matching. *The R Journal*, 6(1), 111-122.
- Ward, J. H., Jr. (1963): Hierarchical grouping to optimize an objective function, *Journal of the American Statistical Association*, 58, 236–244.
- Zuazo, K. (2014): *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

UMEEI ETA NAGUSIEI EGINEKO TESTUEN PROSODIAREN ALDEEZ¹⁵

Naia Eguskiza, Irati De Pablo eta Iñaki Gaminde

^{1,2,3} Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

naia.egusquiza@ehu.eus, irati.depablo@ehu.eus, inaki.gaminde@gmail.com

Laburpena

Lan honen helburua da egoera bitan informatzaile batek ekoitzitako testuen adierazle prosodiko batzuk erkatzea, ikusteko testu motak zenbaterainoko eragina daukan. Horretarako, 60 urteko informatzaile baten ahozko testu bi jaso dira. Informatzaileari eskuat zaio "Txanorritxo" izeneko ipuin ezaguna kontatzeko batetik umeei egingo liekeen bezala eta bestetik, nagusiei egingo liekeen bezala.

Testu moten arteko aldeak ikertzeko aztergai ezberdinak aukeratu dira, lau multzotan banatuta: F0, energia, iraupena eta bokalen tasunak. F0ri dagokionez, talde prosodikoen batezbestekoak, heinak eta muga-tonuen erabilerak erkatu dira, jakiteko testu motaren eragina zenbatekoa den. Talde prosodikoen energiaren batezbestekoak eta heinak erkatu dira testu motaren eragina ikertzeko. Iraupenari dagokionez, denbora osoa, isiluneena, talde prosodikoena, eten beteena, txertaketena, lapsusena eta silaba nagusiena kalkulatu da. Soinu mailan testu motak bokalen tasunei eragiten dien ala ez jakiteko, bokalen lehen formakin biak aztertu dira. Azterketak egin ostean agerian gelditu dira gure corpusean oinarritutako testuen arteko bereizkuntzan daragiten aldagaiaiak zeintzuk diren.

Hitz-gakoak: prosodia, ahozko testuak

Abstract

The aim of this work is to compare some prosodic indicators of texts produced by an informant in two situations, in order to see the influence of the type of text. For this purpose, two oral texts were received from a 60-year-old informant. The informant was asked to tell a popular story called "Little Red Riding Hood" as if she was telling it to children and the other to adults.

Different characteristics have been chosen to investigate the differences between types of texts, divided into four groups: F0, energy, duration and vowel rates. In terms of F0, the averages, ranks, and boundary tones of prosodic groups were compared, to know how much does the text type influence. The energy averages and ranks of prosodic groups were compared to investigate the effect of text type. In terms of duration, total time, silence, prosodic group, discontinuation, insertion, lapse, and major syllable were

¹⁵ Ikerketa hau burutu da IT1028/19 (Eusko Jaurlaritza) eta GIU 16/22 (Euskal Herriko Unibertsitatea) proiektuen barnean eta UPV/EHUk doktoretza aurreko formakuntzan dagoen pertsonala kontratatzeko (PIF) emandako laguntza ekonomikoari esker.

calculated. To determine whether text types affect sound rates, the first two vowel formats were analyzed. After performing the analysis, it was revealed which variables are involved in the differentiation of texts based on our corpus.

Key-words: prosody, oral texts

1. Sarrera

Lan honen helburua da egoera bitan informatzaile batek ekoitzitako testuaren adierazle prosodiko batzuk erkatzea, ikusteko testu motak zenbaterainoko eragina daukan. Informatzaileari eskatu zitzaison “Txanogorritxo” izeneko ipuin ezaguna kontatzeko batetik umeei egingo liekeen bezala eta, bestetik, nagusiei egingo liekeen bezala.

Informatzaileen ahotik harako testuen ebakeraren aldakortasunaren azterketa egin nahi dugunean, kontuan hartu behar dugu ahozko testu guztiak ez direla berdinak eta continuum batean azaltzen zaizkigula. Ñabardurak ñabardura, continuum horren mutur batean bat-bateko testuak edukiko genituzke; argi dago testu motak ere zelan edo halan eragin diezaiokeena testuaren ebakerari eta, interesgarria izan liteke, hizkuntzaren didaktikan esate baterako, hain erabiliak diren testu tipologietan agertzen diren motek zenbaterainoko eragina daukaten ikertzea.


Continuumaren beste muturrean testu irakurriak egongo lirateke. Bien arteko alderik nabarmenena honelakoetan testua egin behar ez izatea da; testua ez da eraiki behar, eginda dago eta. Testu idatziak ez dira beti bat, zaitasun maila desberdinak eduki ditzakete: ez da gauza bera poema bat irakurtzea edo laburdurez eta zenbakiz beterik dagoen testu bat irakurtzea, adibide bi ematearren.

Bada testu irakurriean nabarmendu daitekeen berezitasun bat: testu batzuk isilpean irakurtzeko idatzi dira eta beste batzuk, berriz, ahoz gora irakurtzeko idatzi dira edo moldatu dira. Arazo honezaz, irakurketa ozenaren didaktikaren ikuspuntutik ohar batzuk egin izan dira orain artean ere (Gaminde & Goikoetxea, 2005; Gaminde et al., 2006).

Muturreko egoera hauen artean xehetasun asko egin daitezke; horrela bada, badaude buruz ikasten diren testuak eta gero errexitatu egiten direnak. Testu mota hau irakurriatik hurbilago dago bat-batekoetatik baino.


Badaude, era berean, aldez aurretik jende aurrean esateko prestatzen diren testu idatziak. Adibide franko aipatu dezakegu, hala nola, biltzarretako hitzaldi, ponentzia eta komunikazioetan egileek jaulkitzentz dituztenak; politiko profesional batzuek prentsurrekoetan erabiltzen dituztenak; irakasleek ikasleen aurrean azalpenak ematean bulegoan aldez aurretik prestatu dituztenak; esatari profesional askok kameraren aurrean “naturaltasunez” egiten dituztenak, eta abar. Testu hauek guztiak ez dira guztiz bat-batekoak eta maila bateko edo besteko antzezpenean daukate; hauek, jakina, hurbilago leudeke bat-batekoetatik irakurriatik baino (honako aukeratu dugun testu mota hemen kokatuko litzateke

neurri batean). Lau molde nagusi hauek continuauma osatuko lukete 1. irudian erakusten den moduan.



Testu mota bi prosodikoki eratzeko adierazle asko erabil daitezke. Horietako batzuk F0ren kurbaren konfigurazioari dagozkio, beste batzuk energiari, beste batzuk iraupenari eta, azkenik, beste batzuk soinuen tasun akustikoei.

Ahozko testu baten azterketari ekiten diogunean, ikusten dugun lehenbiziko gauzarik nabarmenena da zati nagusi bi agertzen direla; batetik, alde fonikoa, soinua, dugu eta, bestetik, isiluneak. Hizketa zati bat testutzat jotzeko soinuak eta isiluneak konbinatu behar dira. Esperimentuetan esaldiak eta hitz bakartuak grabatzen ditugunean, hauek ezin har daitezke testutzat, isilunerik ez dagoelako, hain zuen ere; gehienez jota testuaren zatitzat jo daitezke. Beraz, testuaren osagaien lehen banaketan soinu zatiak (Sz) eta isiluneak (Is) dauzkagu; isilunearen mugak “%” ikurren bidez adieraziko ditugu (2. irudia).



Soinu zatitzat-edo hizketa zatitzat-hartzen dugun horretan badira, jakina, beste zati nabarmen batzuk. Alde batetik, hizkuntzarenak ez diren soinuak topatzen ditugu: barreak, eztulak, garramuak, e.a. Komunikaziorako beharrezkoak diren baina hizkuntzaren azterketan ezin koka daitezkeen beste soinu batzuk ditugu, hala nola, “e”, “um” eta hauen antzekoak. Hauek funtzi desberdinak eduki ditzakete: denbora hartzea testua eraikitzeko, adostasuna adieraztea, zalantza adieraztea e.a. Honelakoetan, eta isilune biren artean agertuz gero, eten

betetzat hartu ditugu. Hortaz, eten beteak isilune biren artean dauden soinu zatiak dira eta lotura egiten duten arren, ezin jo daitezke hizkuntzaren beraren soinutzat; hau da, ez daukate esangura lexiko zehatzik.

Batzuetan soinu txertaketa batzuk gertatzen dira; gehienetan “e” eta “a” bokalak izaten dira. Hauek ere ez daukate esangura lexiko zehatzik eta eten beteen antzekoak direla esan dezakegu. Txertaketak hizketa zatiaren hasieran, erdian eta amaieran egon daitezke.

Ager dakiguken beste soinu multzo berezi bat lapsusek osatzen dute. Hauek hizkuntzaren soinutzat jo daitezkeen arren, ez daude osaturik eta gertatzen dira hiztunek euren burua zuzentzen dutenean, trabatzen direnean, gaia, aurrekoamaitu barik, aldatzen dutenean eta antzeko egoeretan.


Aztertuko ditugun hizketa zatiengun mugetan txertaketak (tx) edo isiluneak (%) egon daitezke, aukerak lau izanik (1).

- (1) (tx) ____ (tx)
 (tx) ____ (%)
 (%) ____ (tx)
 (%) ____ (%)

Hizketa zati horiek, era berean, banatuta ager daitezke edo ez. Zenbait kasutan, barne txertaketek banatzen dute hizketa zatia, beste batzuetan soinu luzapenek mugatzen dute eta beste zenbaitetan F0 kurbaren aldaketa bortitzek sorraraz dezakete etenaldiaren efektua.

Beraz, hizketa zatiengun barruko multzo horiek osatuko lukete azterketa prosodikoaren oinarria. Zati horiek etenaldi biren artean dauden zatiak, alegia, talde prosodikoak (TP) dira; beste zenbaitetan (Gaminde, 2010) adierazi den bezala, euren mugak eten motek zehazten dituzte.

3. irudian testuaren osagai guztiak adierazten dira grafikoki. Osagaiak sailkatzea erabili diren irizpideak hiru izan dira: ± isilunea, ± hizketa eta ± luzapena. Soinua dagoenean - isilunea erabiliko da eta isilunea adierazteko + isilunea. + hizketa irizpidearen bidez talde prosodikoak eta eurokin batera agertzen diren txertaketak adierazten dira; - hizketa lapsusei, eten beteei eta gainerako hizkuntzarentzat ezin har daitezkeen soinuei dagokie. Azkenik, talde prosodikoekin batera + luzapena azken silabaren, gehienetan azken silabaren bokalaren, luzapenari dagokio eta - luzapena berori gertatzen ez denean adierazten da.



3. irudia: Testuaren osagaiak.

Orain arteko aztergaiok ebakeraren aldakortasuna aztertzeko adierazle onak ez badira ere, hizkuntzaren ikaskuntzaren eta jabekuntzaren ikuspuntu didaktikotik adierazle onak izan daitezke testuaren kalitate maila zelanbait neurtzeko. Horrela, bada, txertaketa, eten bete eta lapsus asko biltzen dituen testua kalitate eskasagokoa izango litzateke. Era berean, isiluneen iraupena egokitutako behar zaie testuaren ezaugarriei eta testuaren bidez entzuleen baitan lortu nahi diren efektuei eta testuinguruari. Edozelan ere, egokitasun maila neurtu beharko litzateke pertzepzio testen bidez.

Hurrengo azterketa-maila talde prosodikoena da. Talde prosodikoa azterkizun askoren gunea izanik, lehenengo eta behin berau nola definitzen den zehaztu behar dugu. Esan dezakegu talde prosodikoa dela eten biren artean dagoen hizketa zatia. 6. atalean etenak beren-beregi landuko ditugu; oraingoz, esan dezagun etenak isilunedunak (%) eta isilune bakoak (\$) izan daitezkeela. Orduan, talde prosodikoa ondoko era honetara irudikatuko litzateke:

% TP % (\$)

Alta, badakigu txertaketak (tx) ere gertatzen ahal direla talde prosodikoaren aurrean zein ostean; beraz, definizioa egokia izanda ere, zehaztu beharko genuke ondoko era honetara:

% (tx) \$ TP \$ (tx) %

Horrenbestez, egin daitezkeen konbinazioak, 4. irudian erakusten dira. Atal honen helburuetarako xehetasun posible guztiak ez ditugu bereiziko eta definizio orokorra oinarritzat hartuta, eten biren artean dauden talde prosodikoen tasun batzuk oro har aztertuko ditugu.

% (tx)	\$	TP	\$ (tx)	%
%		TP	\$ (tx)	%
% (tx)	\$	TP		%
%		TP		%

4. irudia: Etenen, txertaketen eta talde prosodikoen artean egin
daitezkeen konbinazioak.

Etenak eta etenaldiak bereizi beharko lirateke; izan ere, etenalditzat jo daiteke soinu zatia hausten denean gertatzen dena, hau da, isilunea dena. Etena, berriz, gure honetan da talde prosodikoa mugatzen duena eta, ondorioz, ez da beti egoten isilune baten aurrean. Etenek testuaren osagaien egituraren eta antolaketaren berri ematen digute eta testuaren esangura ulertzan laguntzen digute. Etenak faktore batzuek eragiten dituzte; horietako batzuk fisiologikoak (arnasa hartu beharra), semantikoak (esangura interpretatzenten laguntzen dutenak), logikoak (kateatzeari dagozkionak), psikologikoak (entzulearen arretari eusten laguntzen dutenak) eta pragmatikoak (estrategia komunikatiboekin lotzen direnak) izan daitezke.

Eten motak sailkatzeko oso irizpide eta maila desberdinak proposatu dira bibliografian; horrela bada, maila bitik bostera aurkitzen ditugu. Maila bi erabiltzen dituztenek eten luzeak eta laburrak bereizten dituzte (adibidez Garcia-Arriola & Iruskieta, 2016), hiru maila bereizten dituzten batzuek laburrak, ertainak eta luzeak bereizten dituzte; ToBIren erabiltzaileen artean lau maila bereizten dituztenak (Jun & Elordieta, 1997) eta bost bereizten dituztenak daude. Argi dago, bestalde, hauen arteko aldea oinarri teorikoetan euretan datzana; horrela bada, ToBI sistema Hierarkia Prosodikoaren Teoriarekin erlazionatzen da eta aurrekoek ez dute argi uzten zein teoria datxekion sailkapenari.


Behinhonekero hainbat lekutan esan dugun bezala (Gaminde 2004, 2006, 2010; Gaminde et al., 2012, 2014), etenak isilunearen bidez egin daitezke edo isilunea egin barik. Horren arabera batzuk isilunedunak izango dira (%) eta beste batzuk hain bakoak (\$). Zenbaitetan kurba zatien arteko loturak egiteko edo pentsatzeko denbora hartzeko bokalak luzatu egiten dira isilunearen aurrean (honetakoetan \pm v erabiliko dugu). Luzapenaren kasuan, luzatzen den bokala hainbat luzeagoa izaten da bokal arrunten batezbestekoaren aldean. Beraz, irizpide bi erabiliko ditugu etenak sailkatzeko: \pm isilunea eta \pm luzapena. Denak konbinatuta lau aukera gertatzen dira:

- (a) + isilunedun etenak / - bokal luzapena (%)
- (b) + isilunedun etenak / + bokal luzapena (v%)
- (c) - isilunedun etenak / - bokal luzapena (\$)
- (d) - isilunedun etenak / + bokal luzapena (v\$)

Sintagma fonologikoak talde prosodikoaren azpiko mailan dauden osagaiak dira eta, bigarren atalean adierazi dugun bezala, gailur batek bere menpean hartzen duen zatia da; bestalde, euren azpian silabak daude. Honek esan nahi du euren barruan talde klitikoak ere kokatzen direla eta gure lan honetan berba fonologikoak ez ditugula kontuan hartuko. Sintagma fonologikoek prosodiaren eta sintaxiaren osagaien arteko erlazioaren berri ematen digute.

Talde prosodiko batek sintagma fonologiko bakarra eduki dezake eta, horrenbestez, gailur bakarra egongo litzateke bertan. Talde prosodikoan gailur bat baino gehiago egonez gero, orduan sintagma fonologiko batzuek osatua izango litzateke; hau da, zenbat gailur, beste

horrenbeste sintagma fonologiko. Aztertzeko metodologiari dagokionez, lehen urratsean F0 kurban zenbat aldaketa bortitz dagoen ikusi behar da, 5. irudian bezala. Behin gailurrak identifikatuz gero, testuaren transkripzioari begiratu behar zaio jakiteko zer den gailurraren azpian kokatzen den talde prosodikoaren zatia; honetan, sintaxiaren osagaien lagundu diezagukete erabakia hartzen, hau da, sintagma osoak izango lirateke gailurraren eremuak. Arazo nagusia da sintagma muga tonuen eta gailurren arteen bereiztea. Sintagma fonologikoak beti ez dato bat sintaxiaren sintagmekin; izan ere, lokailuak sintagmekin batera, sintaxiaren sintagma bi baino gehiago, aditz trinkoak klitizatuta, sintaxiaren sintagma batzuk hautsita, eta abar ager daitezke. Azterketaren etapa honetan azentuarekin lotzen diren azentu-tonudunak, sintagma tonuak eta muga-tonuak txerta daitezke.



Silaben azterketari ekiteko silabifikazioaren arazoez ohar metodologiko batzuk egin behar ditugu. Gure lan honen oinarria informatzaileak jaulkitako seinalea izanik, esan behar dugu bertan ez dagoela silabaren inongo adierazlerik edo lorraztik eurak identifikatzeko eta markatu ahal izateko; beraz, gure silaba banaketa ez da oinarritzen irizpide akustikoetan, fonologikoetan baino.


Silabak etiketatzeko eta gero aztertu ahal izateko, birsilabifikazioa hartu dugu oinarritzat, hau da, talde prosodiko osoa hartu dugu bersilabifikazioaren eremutzat. Prozesu honetan ikertzailearen intuizioa erabili da markak ipintzeko; bersilabifikazioa ezker-eskuin egin da eta, eremu horren barruko, kodak ondoko silabaren gunekin kontatu ditugu hasierak hutsak izan direnetan; nahiz berori beste egoera batzuetan kodan silabifika daitekeen. 1. taulan irizpide hauen adibide batzuk erakusten dira.

Arauak	[bost] [lagun]	[bost] [ume]
Silabifikazioa	[bost] [la.gun]	[bost] [u.me]
Bersilabifikazioa	[bos.la.gun]	[bos.tu.me]

1. taula: Silabifikazioaren eta bersilabifikazioaren adibideak.

Euskaraz silabaren gunean beti egoten da bokal bat gutxienez (V) eta alboetan, berriz, kontsonanteak (C). C eta V konbinatuaz, silaben oinarrizko tipologia bat egin da: CVC, CV, VC eta V. Silaben azterketetan aurkitu diren asimetriak hobeto harrapatzeko, gunea eta koda

biltzen dituen tarteko maila bat proposatu da. Maila hori errima da; orduan, silabek 6. irudian erakusten den egitura hierarkikoa daukate.



Azkenengo edo beherengo maila soinu-maila da; arlo honetan, soinuen tasunetan testu motak daukan eragina azter daiteke. Honenbestez, ahozko testuen prosodia aztertzeko sei maila bereizten dira, 2. taulan erakusten den bezala.

Maila	Osagaiak
Testua	Hizketa zatia __isiluneak
Hizketa zatia	Talde prosodikoak, eten beteak, txertaketak, lapsusak
Talde prosodikoak	Etenak, Muga-tonuak
Sintagma fonologikoak	Gailurrak
Silabak	Hasierak, guneak, errimak, kodak
Soinuak	Tasunak

2. taula: Testua aztertzeko mailak eta mailen osagaiak

Lana lau ataletan banatuta aurkezten dugu: sarrera honen osteko bigarren atalean metodologiaz jardungo dugu, hirugarren atalean datuen azterketa aurkeztuko da eta azkenik, laugarren atalean, ondorio nagusiak laburbilduko dira.


2. Metodologia

Atal honetan lana burutzeko egin ditugun hautu metodologikoak azaltzen dira, datuen jasotzeari, prozesatzeari eta aztertzeari dagokienez.

Gorago aipatu den moduan, testuak jasotzeko informatzaile baten laguntza izan dugu. Informatzailea 60 urteko andrazkoa izan da eta testu biak egiteko bere Gatikako jatorrizko barietatea erabili du, nahiz euskaraz alfabetatuta dagoen eta estandarra ere dakien.

Informatzaileari eskatu zaio “Txanogorritxo” izeneko ipuina kontatzeko umeei eta nagusiei egingo liekeen moduan. Grabazioak egiteko telefono bat erabili da “wav” formatuan grabazioa ahalbidetzen duen aplikazio bat erabilita. Testuak etiketatu eta transkribatzeko

“Praat” (Boersma & Weenink 2018) programa erabili da eta lau tira egin dira 7. irudian ikus daitekeen bezala.



Informazioa jaulkitzeko Praaterako egin diren script batzuk erabili dira eta gero izari bakoitzaren neurriekin aztertzeko beharrezko matrizeak egin dira. Sarreran aipatu diren testuak aztertzeko sei mailetatik bost mailetako adierazle batzuk landu dira, 3. taulan maila horietako bakoitzean landu diren adierazleak erakusten dira.

	Adierazleak			
Maila	F0	Energia	Iraupena	Tasunak
1. Testua			Testu osoa Isiluneak	
2. Hizketa zatia			Talde prosodikoak Txertaketa Eten beteak Lapsusak	
3. Talde prosodikoak	Batezbestekoak Heinak Muga-Tonuak	Batezbestekoak Heinak	TPen luzea Abiada	
4. Silabak			CV silabak Erritmoa	
5. Soinuak				Bokalen F1, F2

3. taula: Maila bakoitzeko landu diren adierazleak.

F0ri dagokionez, talde prosodikoen batezbestekoak eta heinak hertzetan neurtu dira. Bestalde, talde prosodikoen muga-tonuak seinaleei erreparatuta transkribatu dira eta lau muga-tonu bereizi dira: H erabili da F0ren igoera talde prosodikoaren azken silaba osoan zehar gertatzen denean, L erabili da azken silaban zehar F0ren jaitsiera gertatzen denean, HL erabili da azken silabaren hasieran tonu gorakada gertatzen denean eta, amaieran beherakada gertatzen denean, LH kontrako egoeretan erabili da; hau da, azken silabaren hasieran beherakada dagoenean eta silabaren amaieran gorakada.

Energiari dagokionez, talde prosodikoen energia osoaren batezbestekoa eta heinak neurtu eta erkatu dira.

Iraupenari dagozkion azterketak maila guztieta egin dira. Hizketa mailan talde prosodikoen, eten beteen, txertaketen eta lapsusen iraupenak neurtu dira. Talde prosodikoen mailan eten motak aztertu dira eta talde prosodikoen luzera; era berean, luzerarekin lotuta dauden artikulazio-abiada eta abiada osoa neurtu dira. Silaba mailan gehien erabiltzen den CV silabaren iraupenak neurtu eta aztertu dira egongunearren arabera eta erdiko egongunean baino ez. Azkenik, soinu mailan erritmoa ere aztertu da.

Prosodiaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat erritmoa da; berau hizketaren denbora-egiturari lotuta agertzen zaigu. Erritmoa patroi baten errepikapenak osatua da eta patroi hori ezinbestekoa da pertzepzioan. Berau hizkuntzaren fonologiaren propietatea da; tempoa, ostera, hiztunaren ezaugarriei eta hizketa egiten den baldintzei lotuta agertzen zaigu. Erritmoa azterzeko proposatu diren metriketan, Ramus et al., (1999) lehenak izan ziren erritmoaren korrelatu akustiko behagarriak proposatzen eta metrika bat sortu zuten. Euren metrikan hiru dira neurtu eta koerlazionatzen diren parametroak:

ΔV : bokal tarteen desbiderapena

ΔC : kontsonante tarteen desbiderapena

%V: bokalen portzentajea

Indize horien arabera hizkuntza isosilabikoetan emaitza txikiagoak lortzen dira ΔV_n eta ΔC_n isoazentualetan baino (Toledo, 2010).

Tempoaren efektuak apaltzeko varco-C eta varco-V izeneko indizeak proposatu dira (Dellwo, 2006); horretarako, ondoko formulen arabera, ΔV_a edo ΔC_a bider ehun egiten dira eta gero bokalen edo kontsonanteen iraupenen batezbestekoekin zatitzen dira:

$$\text{varco} \Delta C = \frac{\Delta C * 100}{\text{meanC}}; \text{ C = duration of consonantal intervals}$$

Grabe-k eta Lowk (2002) proposatutako indize bi dauzkagu, bata nPVI da eta bestea rPVI. Eurak kalkulatzeko ondoko formulak erabiltzen dira.

$$nPVI = 100 \times \left[\sum_{k=1}^{m-1} \left| \frac{d_k - d_{k+1}}{(d_k + d_{k+1})/2} \right| / (m - 1) \right]$$

$$rPVI = \left[\sum_{k=1}^{m-1} \left| d_k - d_{k+1} \right| / (m-1) \right]$$

Azkenik, Bertinettok eta Bertinik (2008) proposatutako metrika kalkulatzeko ondoko formula erabiltzen da:

$$CCI = \frac{100}{m-1} \sum_{k=1}^{m-1} \left| \frac{d_k}{n_k} - \frac{d_{k+1}}{n_{k+1}} \right|$$

Metrika bakoitzaren emaitzen interpretazioetan konbinazio asko dauden arren (Gibbon & Gut 2001; Prieto & Vanrell 2010), gure datuak aztertzeko orokorrenak erabiliko ditugu.

Kalkuluak eta grafikoak egin ahal izateko “Correlatore” izeneko programa erabili dugu; programa honek “Praat” programak sorturiko testu artxiboak erabiltzen ditu eta sano errazten du kalkulu prozesu osoa.

Soinuen tasunei dagokienez, bokalen formakinak baino ez ditugu landu testu bietan bakoitzaren bokalen triangeluak ateratzeko eta erkatu ahal izateko.

3. Datuen azterketa


Atal honetan testu moten arteko aldeak aztertzeko aukeratu ditugun aztergaiak lau multzotan banatuta aurkeztuko ditugu: F0, energia, iraupena eta bokalen tasunak.

3.1. F0

F0ri dagokionez, talde prosodikoen batezbestekoak, heinak eta muga-tonuen erabilera erkatuko ditugu, jakiteko testu motaren eragina zenbatekoa den.

4. taulan talde prosodikoen F0ren batezbestekoak (\bar{x}) desbideratzeak (sd), minimoak (min), maximoak (max) eta heinak ematen dira, bai umeei (U) egineko testuan, bai nagusiei (N) eginekoan). Bertan ikusten den moduan, nagusiei egiten zaienean F0ren batezbestekoa altuagoa da umeei egiten zaienean baino (8. irudiko grafikoa); alde hau estatistikoki esanguratsua da T probaren arabera ($T = -2,509$ (a.m.: 130), $p = 0,013$).

	\bar{x}	sd	min	max	heina
U	128,05	21,68	96,56	199,80	103,24
N	137,51	21,06	97,33	199,84	102,51
4. taula: Talde prosodikoen F0ren datu orokorrak testu bakoitzeko.					



8. irudia: F0ren batezbesteko testu bakoitzeko.

5. taulan talde prosodikoen F0ren heinei dagozkien datuak ematen ditugu. Bertan erakusten den bezala, hein handixeagoa erabiltzen da nagusien testuan umeen testuan baino; hala ere, alde hau ez da estatistikoki esanguratsua.


	\bar{x}	sd	min	max	heina
U	60,24	29,44	11,00	136,62	125,62
N	65,93	32,78	12,43	158,34	145,91

5. taula: Talde prosodikoen F0ren heinen emaitzak testu bakoitzeko.

Muga-tonuei dagokienez, 6. taulan agertu zaizkigunen kopuruak eta ehunekoak ematen ditugu testu mota bakoitzeko (9. irudiko grafikoa). Bertan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak izan ez arren, alderik handienak L eta LH muga-tonuen erabileraren ehunekoetan gertatzen direla argi agertzen da.

	U		N	
	Kopurua	%	Kopurua	%
H	8	10,53	9	16,07
L	21	27,63	11	19,64
HL	35	46,05	24	42,86
LH	12	15,79	12	21,43
Orotara	76	100	56	100

6. taula: Muga-tonuen kopuruak eta ehunekoak testu mota bakoitzeko.



9. irudia: Muga-tonuen ehunekoak testu mota bakoitzeko.


3.2. Energia

Aurreko azpiatalean F0rekin egin dugun bezala, oraingo honetan talde prosodikoen energiaren batezbestekoak eta heinak erkatuko ditugu testu motaren eragina ikertzeko.

7. taulan talde prosodikoen energiaren gainekeko datu orokorrak ematen dira. Bertan ikusten den bezala, nagusiei egineko testuaren talde prosodikoen energia altuagoa da umeei eginekoaren talde prosodikoena baino (10. irudiko grafikoa); alde hau estatistikoki esanguratsua da ($T = -2,348$ (a.m.: 130), $p = 0,020$).

	\bar{x}	sd	min	max	heina
U	58,99	3,63	51,43	67,72	16,29
N	60,59	4,19	50,40	71,39	20,99

7. taula: Talde prosodikoen energiaren gainekeko datu orokorrak.



10. irudia: Talde prosodikoen energiaren batezbestekoak testu mota bakoitzeko.

8. taulan talde prosodikoen energiaren heinei dagozkien datuak ematen ditugu. Bertan erakusten den bezala, hein handixeagoa erabiltzen da umeen testuan nagusienean baino; hala ere, alde hau ez da estatistikoki esanguratsua.

	\bar{x}	sd	min	max	heina
U	25,02	8,22	4,99	38,87	33,88
N	24,47	7,34	6,04	36,96	30,92

8. taula: Talde prosodikoen energiaren heinei dagozkien datuak.

3.3. Iraupena


Azpiatal honetan iraupenaren datuen azterketa aurkezten dugu maila desberdinaren eginda: denbora osoa, isiluneena, talde prosodikoena, eten beteena, txertaketena, lapsusena eta silaba nagusien. Bestetik hauekin erlazionatutako eten motak, talde prosodikoen luzera, abiada eta erritmoa ere aztertuko dira.

Denbora osoari dagokionez, umeei zuzendutako testua (102,940 s.) luzeagoa da nagusiei zuzendutakoa baino (73,030 s.).

Testu bakoitzaren isilune kopurua eta isiluneen denbora 9. taulan erakusten dira. Bertan ikusten den bezala, umeei zuzendutako testuan isilune kopuru handiagoa egiten da eta isilune guztien denboraren ehunekoa handiagoa da (11. irudiko grafikoa).

	Kopurua	Denbora	Denbora Osoa	%
U	45	26650	102940	25,89
N	27	14020	73030	19,20

9. taula: testu bakoitzaren isilune kopurua eta isiluneen denbora.



11. irudia: Testu mota bakoitzaren isiluneen denboraren ehunekoak.

Isiluneen iraupena erkatzen dugunean (10. taula), ikus dezakegu isiluneak oso desberdinak direla euron iraupenari dagokionez; aldeak estatistikoki esanguratsuak ez diren arren, umeei egiten zaien testuan agertzen den heina askozaz handiagoa da nagusiei eginekoan baino.

	\bar{x}	sd	min	max	heina
U	595,11	499,74	70	2490	2420
N	519,26	433,44	80	1530	1450

10. taula: Isiluneen iraupenaren emaitzak testu mota bakoitzeko.

Hizketa zatiaren osagaien (talde prosodikoak (TP), txertaketak (tx), eten beteak (EB) eta lapsusak (lap)) kopuruak eta denborak 11. taulan erakusten direnak dira. Bertan agertzen den bezala, aldeak oso txikiak dira kasu guztieta.

	U			N		
	Kopurua	Denbora	%	Kopurua	Denbora	%
TP	76	69280	67,30	56	50570	69,25
tx	13	5360	5,21	13	4850	6,64
EB	2	1200	1,17	4	2560	3,51
lap	1	320	0,31	1	1030	1,41

11. taula: Hizketa zatiaren osagaien kopuruak eta denborak.

12. taulan talde prosodikoen iraupenari dagozkion datuak erakusten dira; batezbestekoetan agertzen diren aldeak oso txikiak dira eta ez dira estatistikoki esanguratsuak. Hala ere, aldakuntza koefizienteak oso desberdinak dira, umeei egineko testuan % 47,04 eta nagusiei eginekoan % 72,36.

	Ȑ	sd	min	max	heina
U	911,58	428,80	330,00	2250,00	1920,00
N	903,04	653,45	240,00	4250,00	4010,00
12. taula: Talde prosodikoen iraupenaren emaitzak testu mota bakoitzeko.					

Talde prosodikoen luzera aztertzean 13. taulako emaitzak lortzen ditugu; batezbestekoetan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak izan ez arren, aldakuntza koefizienteak oso desberdinak dira % 63,83 umeei egineko testuan eta % 93,17 nagusiei eginekoan.

	Ȑ	sd	min	max	heina
U	4,68	2,99	1,00	16,00	15,00
N	5,13	4,78	1,00	29,00	28,00
13. taula: Talde prosodikoen luzeraren emaitzak testu mota bakoitzeko.					


Talde prosodikoen silaba kopurua eta iraupena korrelazionatzean ikusten dugu umeei egineko testuan korrelazioa positiboa eta handia dela ($r=0,874$, $p = 0.000$) baina, nagusiei egineko testuan korrelazioa handiagoa da ($r=0,97$, $p = 0,000$).

Korrelazioa ez da erabatekoa silabaren iraupena egonguneararen arabera aldatu egiten delako eta testuaren arabera ere, geroxeago ikusiko dugun bezala. 14. taulan testu bietako CV silaben iraupenak ematen dira egonguneararen arabera. Bertan ikusten den bezala, alderik nabarmenenetik amaierako silaben batezbestekoan gertatzen da. Kruskal-Wallis estatistikoak adierazten du aldea estatistikoki esanguratsua dela ($\chi^2_{(a.m.:2)} = 28,923$; $p = 0,000$). Hala ere, binan-binan erkaketak egitean, ikusten dugu hasierako eta erdiko silaben batezbestekoan dagoen aldea ez dela estatistikoki esanguratsua; bai, ostera, hasierakoentzat eta amaierakoentzat artekoak ($z = -4,706$; $p = 0,000$) eta erdikoentzat eta amaierakoentzat artekoak ($z = -5,344$; $p = 0,000$).

	\bar{x}	sd	min	max	heina
hasieran	142,81	45,31	70,00	310,00	240,00
erdian	144,05	51,55	70,00	490,00	420,00
amaieran	334,17	109,00	160,00	570,00	410,00
14. taula: Silaben iraupenaren emaitzak egonguneararen arabera.					

Gehien erabiltzen den silaba mota CV da. Testu bietako silaba mota hauen iraupena neurtu dugu erdiko gunean eta C baten aurrean gertatzen denean, hau da, CV.C ingurunean. 15. taulan datuak erakusten dira. Bertan agertzen den bezala, umeei egineko testuan silabak luzeagoak dira (12. irudiko grafikoa); alde hau estatistikoki esanguratsua da ($T = 2,218$ (a.m.: 242), $p = 0,028$).


	\bar{x}	sd	min	max	heina
U	150,28	52,59	70,00	490,00	420,00
N	136,37	41,64	40,00	390,00	350,00
15. taula: CV silaben iraupenaren emaitzak testu mota bakoitzeko.					



Gorago esan dugun moduan, abiada osoa eta artikulazio-abiada bereiz azter daitezke. Abiada osoari dagokionez, gure informatzaileak umeei egineko testuan 3,55 silaba segundoko egiten ditu eta 4,05 nagusiei egineko testuan. Artikulazio-abiadaren datuak 16. taulan agertzen dira. Bertan ikusten den bezala, nagusiei egineko testuan, abiada osoan bezalaxe, abiada altuagoa da umeei egineko testuan baino; hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua. 13. irudiko grafikoan abiada mota bien emaitzak erka daitezke.

	\bar{x}	sd	min	max	heina
U	4,99	1,66	0,97	8,33	7,36
N	5,30	1,68	1,52	9,76	8,24

16. taula: Artikulazio-abiadaren emaitzak testu mota bakoitzeko.



17. taulan txertaketen iraupenen gaineko datuak ematen ditugu. Umeei egineko testuaren txertaketeten iraupenaren batezbestekoa altuagoa da nagusiei egineko testuan baino; aldea, baina, ez da estatistikoki esanguratsua.

	\bar{x}	sd	min	max	heina
U	412,31	150,89	240,00	770,00	530,00
N	373,08	243,22	60,00	940,00	880,00

17. taula: Txertaketeten iraupenaren emaitzak testu mota bakoitzeko.

Eten motak aztertzeko sarreran aipatu ditugun eurok sailkatzenko irizpideak erabiliko ditugu. Orduan, \pm isilune eta \pm v etenen hedadura ikusiko dugu lehenengo eta, gero, irizpide bien konbinazioen hedadura.

18. taulan ± isilunedun etenen kopuruak eta ehunekoak erakusten dira testu motaren arabera; umeei egineko testuetan isilunedun eten gehiago erabiltzen da eta nagusiei egineko testuan, oster, gehienak isilune bakoak dira; hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

	+isilunea		-isilunea	
	Kopurua	%	Kopurua	%
U	40	52,63	36	47,37
N	21	37,5	35	62,5
18. taula: Isilunedun eta isilune bako eten kopuruak testuko.				


Bokal luzapenei dagokienez, 19. taulan ikusten den moduan, esan dezakegu ez dagoela alde handirik, nahiz testu mota bietan nagusitzen diren etenak bokal luzapena daukatenak izan; aldea oso txikia da eta berori ez da estatistikoki esanguratsua.

	+v		-v	
	Kopurua	%	Kopurua	%
U	47	61,84	29	38,16
N	36	64,29	20	35,71
19. taula: Bokal luzedun eta luzapen bako etenen kopuruak eta ehunekoak testuko.				

Aurreko tasun biak (\pm isilunea eta \pm bokala) konbinatuta lau aukera agertzen dira: 1) +sil, +bokala, 2) +sil, -bokala, 3) -sil, +bokala eta 4) -sil, -bokala. 20. taulan aukera bakoitzaren kopuruak eta ehunekoak ematen ditugu (14. irudiko grafikoa); aukera bakoitzaren ehunekoan arabera umeei egineko testuan honela agertzen dira erreskadan: $3 > 1 > 2 > 4$ eta nagusiei eginekoan, berriz, $3 > 1 > 4 > 2$. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

	+isil, +bokala		+isil, -bokala		-isil,+bokala		-isil, -bokala	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
U	23	30,26	17	22,37	24	31,58	12	15,79
N	15	26,79	6	10,71	21	37,50	14	25,00

20. taula: Eten mota guztien kopuruak eta ehunekoak testu motako.




14. irudia: Eten mota guztien ehunekoak testu motako.

Erritmoari dagokionez, gorago esan dugun bezala, proposatu diren lau metrika aplikatzearen emaitzak lortu ditugu eta horien arabera egin ditugu erkaketak eta dispersio grafikoak. 21. taulan bokalen (V) eta kontsonanteen (C) emaitzak ematen ditugu metrika bakoitzeko (1. metrikan %V eta ΔC , 2. metrikan varcoV eta varco C, 3. metrikan Vnpvi eta Crpvi eta 4. metrikan Vcci eta Ccci). 15. irudiko dispersio grafikoan erakusten den bezala nagusiei egiten zaien testuaren erritmoaren emaitzak gorago agertzen dira umeei egiten zaienean baino.


Metrika	Umeei		Nagusiei	
	V	C	V	C
1	49,55	31,71	43,93	35,99
2	59,11	41,51	50,92	43,18
3	37,73	34,37	40,78	41,51
4	37,94	34,37	38,74	41,51

21. taula: Bokalen eta kontsonanteen emaitzak metrika bakoitzeko.

Alde hauek adierazgarriak diren edo ez jakiteko, gure hemengo emaitzak erkatu ditugu Bermeon (Gaminde et al., 2012) eta Larrabetzun (Gaminde et al., 2017) lortutakoekin. 16. irudiko grafikoan ikus daitekeen bezala, nagusiei egiten zaien testuaren erritmoaren emaitzak Bermeon lortutakoetatik hurbilago agertzen dira eta, ostera, umeei egineko testuarenarenak Larrabetzutik hurbilago agertzen dira.



15. irudia: Metrika bakoitzaren dispersioak.



16. irudia: Metrika bakoitzaren emaitzak testuko Bermeoko eta Larrabetzuko emaitzen aldean.

3.4. Bokalen tasunak


Soinu mailan testu motak bokalen tasunei eragiten dien ala ez jakiteko, bokalen lehen formakin biak aztertu ditugu. 22. taulan bokal bakoitzaren formakinen batezbestekoak eta desbideratzeak aurkezten dira; aldeak testu motaren arabera estatistikoki esanguratsuak diren jakiteko Mann-Whitney U proba estatistikoa erabili da eta taulan beronen “z” eta “p” balioak ere paratu ditugu.

		U		N		z	p
		\bar{x}	sd	\bar{x}	sd		
[i]	F1	381,78	73,66	386,53	73,22	-0,585	0,558
	F2	2246,05	208,60	2136,96	253,45	-1,529	0,216
[e]	F1	462,77	50,49	513,18	119,11	-2,054	*0,040
	F2	1910,37	184,10	1902,30	188,51	-0,819	0,413
[a]	F1	629,19	96,82	643,20	75,80	-1,201	0,230
	F2	1631,34	175,87	1638,83	150,10	-0,161	0,872
[o]	F1	472,70	54,11	505,45	64,11	-2,056	*0,040
	F2	1065,85	105,10	1097,45	118,32	-0,947	0,344
[u]	F1	370,88	39,30	370,59	37,44	-0,103	0,918
	F2	1074,94	186,24	1021,06	150,25	-0,999	0,318

22. taula: Bokalen formakinen batezbestekoak, desbideratzeak eta esanguratasuna.

Taulan ikusten den bezala [u]ren kasuan izan ezik, bokal guztiak irekiagoak dira nagusiei egineko testuan. F2ren arabera ikusten dugu goiko bokalak aurreratuago egiten direla umeei egineko testuan nagusiei eginekoan baino. [o]rekin alderantziz gertatzen da, aldea txikia

izanik eta [e] eta [a] bokalekin aldea oso txikia da (17. irudiko grafikoa). Edozelan ere, aldeak [e] eta [o] bokalen F1ekin baino ez dira estatistikoki esanguratsuak.



4. Ondorioak

Atal honetan datuen azterketan jaso ditugun ondoriorik garrantzitsuenak laburbilduko ditugu. Erabili dugun corpora eta berori jasotzeko metodologia gogotan, argi dago hemengo ondorioak behin-behinekotzat baizik ezin har daitezkeena. Hurrengo lanetarako corpora handitu ez eze, era naturalean ere, hots, umeekin batera jaso beharko litzateke. Nolanahi ere den, testuen artean badaude alde interesgarri batzuk, jarraian biltzen ditugunak atalik atal.

F0ri dagokionez, talde prosodikoen batezbestekoei begira ikusi dugu umeei egiten zaien kasuan baxuagoa dela eta aldea estatistikoki esanguratsua dela. Heina ere baxuagoa da umeei eginekoan, baina oraingo honetan aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Testu bietan mugatonu berberak erabiltzen dira eta, alderik handienak L eta LH tonuen erabilera gertatzen den arren, aldea ez da estatistikoki esanguratsua izan.

Energia aztertu ondoren ikusi dugu talde prosodikoen energiaren batezbestekoa altuagoa dela nagusiei egineko testuetan eta aldea estatistikoki esanguratsua dela. Energiaren heinari dagokionez, umeei egineko testuan handixeagoa izan arren, aldea oso txikia da.

Iraupenari dagokionez, umeei egineko testua luzeagoa da, umeei egineko testuan isilune gehiago eta isiluneen denbora handiagoa da, hizketa zatiaren osagaien denbora absolutuetan ikusi dugu ez dagoela alde handirik, nagusiei egineko testuaren talde prosodikoak luzeagoak dira, hau da, silaba gehiago biltzen dute. CV silabak luzeagoak dira umeei egineko testuetan eta aldea estatistikoki esanguratsua da. Abiadari dagokionez, bai abiada osoa, bai artikulazio-abiada handiagoak dira nagusiei egineko testuan, aldea estatistikoki esanguratsua izan ez arren. Eten mota berberak agertzen dira testu bietan eta agertzen diren aldeak ez dira oso handiak; edozelan ere, umeei egineko testuetan isilunedun etenek ehuneko handiagoa daukate nagusiei egineko testuan baino. Azkenik, erritmoa aztertzean agertzen diren aldeak oso

handiak izan ez arren, beste herri batzuetako emaitzekin erkatzean ikusi dugu nagusiei egineko testuaren emaitzak Bermeon lortutakoetatik hurbilago daudela eta umeei egineko testuarenak, berriz, Larrabetzun lortutakoetatik.

Bokalen tasunak aztertzean ikusi dugu nagusiei egineko testuaren bokalak irekiagoak direla oro har eta goiko bokalak aurreratuago egiten direla umeei egineko testuan.

Azkenik, laburbilduz, testu bien artean agertzen diren alde estatistikoki esanguratsuak hiru dira: F0ren batezbestekoa, energiaren batezbestekoa eta CV silaben iraupena. Hortaz, esan dezakegu umeei zuzendutako testuaren ezaugarri nagusiak baxuagoak, apalagoak eta silaba luzeagokoak direla.

5. Erreferentziak

- Bertinetto, P.M., & Bertini, Ch. (2008). On modeling the rhythm of natural languages, *Proceedings of Speech Prosody*. Campinas.
- Boersma, P., & Weenink, D. (2018). *Praat doing phonetics by computer*. [Computer Program] Retrieved from: <http://www.fon.hum.uva.nl/praat/>
- Dellwo, V. (2006). "Rhythm and speech rate: a variation coefficient for delta C" in P. Karnowski & I. Szigeti (arg.), *Sprache und Sprachverarbeitung: Akten des 38. Linguistischen Kolloquiums in Piliscsaba 2003*. <http://maincc.hufs.ac.kr/~tae/past/2010_2/phonetics_g/10_delwo06.pdf>
- Gaminde, I. (2004). Doinuak eta etenak Gatikako intonazioan. *FLV*, 97, 519-536.
- Gaminde, I. (2006). "Intonazio kurben etenez" in Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask. *ASJU XL*:1-2 (351-376).
- Gaminde, I. (2010). *Bizkaiko Gazteen Prosodiaz: Euskaraz eta Gatzelaniaz*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, I., Bilbao, B., Perez, K., Goikoetxea, J. L., Goikoetxea, U., Barrutia, E., Izagirre, E. & Unamuno, M. (2006). *Irakurketa Ozena Bizkaian lantzeko materialak: Gida Didaktikoa*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Gaminde, I. & Goikoetxea, U. (2005). *Irakurketa Ebaluatzeko Irizpideak Bizkaian*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Gaminde, I., Etxebarria, A., Garay, U. & Romero, A. (2012). Esaldi barruko eten moten pertzepzioaz. *Ikastorratza*, 8.
- Gaminde, I.; Etxebarria, A.; Garay, U. & Romero, A. (2014). Análisis fonológico de las emociones básicas simuladas en las variedades orientales de la lengua vasca. *Dialectologia-12*; 67-87 or.
- Gaminde, I., Olalde, A., Etxebarria, A., Eguskiza, N., & Gaminde, U. (2017). *Hizkuntza Aldakortasuna Larrabetzun*. Bilbo: Larrabetzuko Udala.
- Garcia-Arriola, E., & Iruskieta, M. (2016). Intentziozko irakurketa ozena: lehen urratsak. *TANTAK*, 28 (2), 2016, 85-110 orr.
- Gibbon, D., & Gut, U. (2001). Measuring Speech Rhythm. *Proceedings of Eurospeech 2001*.
- Grabe, E., & Low, E. L. (2002). Durational variability in speech and the rhythm class hypothesis. *Papers in laboratory phonology*, 7(515-546).
- Jun, S. A. & Elordieta, G. (1997). "Intonational structure of Lekeitio Basque", in A. Botinis; G. Kouroupetroglou, eta G. Carayannis, (eds), *Intonation: Theory, Models and Applications*. Proceedings of an ESCA Workshop, Athens, Grezia, 193-196.
- Mairano, P. (2009). *Correlatore*. Retrieved from: <http://www.lfsag.unito.it/correlatore/>

Prieto, P., & Vanrell, M.M. (2010). Speech rhythm as durational marking of prosodic heads and edges. <<http://prosodia.upf.edu/activitats/prosodicdevelopment/presentacions/prieto.pdf>>

Ramus, F., Nespor, M. & Mehler, J. (1999). Correlates of linguistic rhythm in the speech signal. *Cognition*, 72, 1-28.

Toledo, G. (2010). Métricas rítmicas en microdiscursos. *Onomázein* 21. <http://www.onomazein.net/21/03-TOLEDO.pdf>

Zabalduz

Jardunaldi, kongresu, sinposio, hitzaldi eta omenaldien argitalpenak

Publicaciones de jornadas, congresos, simposiums, conferencias y homenajes

INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU
argitaltxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus

argitalpenak@ehu.eus • editorial@ehu.eus
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbao • Apartado 1397 - 48080 Bilbao
Tfn.: 94 601 2227 • www.ehu.eus/argitalpenak



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea